

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Azaroak 9, 83. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

ERREPORTAIA

**Goier:
Atzerrian
ikasten**




**ESTHER
LARRAÑAGA,**
Deba Garaiko
parlamentari
berria

**Iñaki
Mendigurenen
opera prima**

"Haltzak badu bihotzik"




Joseba



**A R R A S A T E
K I R O L A K**

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

AZ

 tarjeta 6000

Tarjeta 24

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

CADUCA FINAL ►

GK TXARTELA

Aldean eraman aldiro

Gipuzkoako Kutxaren
GK Txartela eraman behar
da aldean, eguneraturik
egoteko.

Gipuzkoako Kutxaren
Kutxazain Automatikoetan
erabateko erosotasunez
iharduteko.

Edozein dendatan aldean

eskudirurik eraman gabe
ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez
baliatzeko.

Era automatizatuan eta
ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe
bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Intxaurrondoak

Urriaren hego haizeek intxaurrondoetako adaxkak ongi astindu ondoren hutsik aurkitzen dira orain, intxaurrik gabe. Ez dut uste aurten goa intxaur urte ona izan denik; behintzat, nik ezagutzen ditudan intxaurrondoak aurreko sasoieta baino biluziago agertu bait dira. Dendetan, berriz, bai; salmahaietan aurreko urtetan bezainbeste azaldu dizkigute. Gehienak kanpotik ekarrita.

Ez dut oroitzen, inoiz Arrasaten intxaurrondo tantai eder horietakorik ikusi dudarik. Izango ziren eta - baliteke- oraindik ere banakaren bat izatea. Hala ere, ez dirudi gure inguruan erruz eman denik arbola horrekiko zaletasuna. Eta inork kontrako frogak balitu gustora aldatuko nuke eritzia.

Hainbeste landare eta fruitu bezala, Asia Txikiko mendietatik gureganatu zen intxaurrondoa. Berau da, pikondoarekin batera, gizonak landaratu eta haziriko fruitu-arbolarik zaharrena. Zibilizazio eta kultura guztietan ageri da intxaurrondoa, intxaurrak zenbait kasutan sinbolobalore bitxiak aurkeztuz. Frantziar astrologian, esaterako, apirilaren 21 eta 30 eta urriaren 24 eta azaroaren 2aren artean jaiotakoak «intxaurrondo» dira. Pliniok, bestalde, intxaur bat maluskatzea gomendatzen zuen, zakur arrabiatuaren haginkadatik sendatze-ko.


Erromatarrek -analogia antropomorfikoen lagun izanik- intxaurra giza buruarekin alderatzen zuten. Haientzat, ile azala oskol berdea zen; buruhezurra, berriz, zurezko oskola; burmuin atalak, intxaurraren bi zatiak; meningeak, azkenik, intxaurraren azal mehea ziren. Antzerakotasun hori dela eta, erromatarrek intxaurra aipatzen zuten burukomin eta buru-gaixotasunak uxatzeko.

Eta sinesmen horren arrasto batzuk gureganaino heldu dira, guk ere behin baino gehiagotan entzun bait dugu intxaurrondo azpian luzez egon ondoren, burukominak jotzen gaituela. Intxaurrondoa adiskide segurua da astrologi zeinuetan baina, itxura denez, haren menpekotasunetik libre egon behar da. Adituek diotenez, intxaurrondoaren kerizpean ez dira tomate eta patatak hazten, haren zuztarrek gai toxiko bat sortzen ei dute eta. Areago, intxaurrondoko hostoak jaten dituen behiak ez duela esnerik ematen ziurtatzen da.

Farmazia, industria edota sukaldaritzan hain estimatua den intxaur apalak aberastasun handia gordetzen du bere baitan. Horrexegatik egin da ospetsu mundu osoan, atzoko ohituretan bezala gaurkoetan ere lekua mantenduz. Nire aitagarinrebak aurten ere ehotuko ditu, eguberritako intxaur-saltsa falta ez dakigun.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

**inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atek

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

olioak, **Artea**
lientzoak,
akuarelak eta
eskulanak

Ferrerias 25

Sugerentzia batzuk

Agur t'erdi:
Aspaldi honetan zenbait aldaketa egin dira Arrasate Pressen, eta nik batzuk kritikatu nahi nituzke, eta proposamen berriak egin.
Hala nola, nik positibo eta egoki jotzen nituen zenbait atal kendu dituzue, hauek bezala:
- Prentsaren begia
- Ez dakizula
Uste dut lehena ondo zegoela, eta komenigarria zela zer esaten zen Arrasateri buruz astean zehar eta beste egunkarietan. Informazio gehigarri bat zen.

Bestalde, bigarren saila, agian zail samarra izango zen betetzea, biltzea eta horrelako informazioa lortzea. Hori izan bada kentzearen arrazoia, ados nago, osterantzean, politto legoke jartzea, Kuriositate hutsagatik bada ere, interesgarria delako.

Oso egokitzat jotzen dut maketazioan egindako aldaketa, eta sail berriak ateratzea, rutina batean ez geratzeko. Horretaz aparte, argazki gehiago agertzen dira, eta beti ere erakargarria da hori.

Beste puntu bat ukituz, sortu berri den «Auzo herriak» sailean herri bat falta dela uste dut, nahiz eta bertan informazio asko ez agertu, eta Aramaio izango litzateke herri hau. Duela aste pare bat edo, bertan «Mendi aste» bat egon zen, eta honelako informazioak agertzea komenigarria eta aipagarria izango litzateke, edo pelota txapelketak direla... Badakit Aramaiokoe ere ardura pixka bat eduki beharko lutekela honelako informazioak komunikabideetara bidaltzeko, baina hori nolabait konponduko duzuela uste dut, Aramaiora buelta bat eginez...

Azkenik, aurreko Arrasate Press batean (79.zenbakian) irakurle batek proposatzen zuena bultzatu egiten dut, eta nik ere, Arrasate Press ateratzeko papera, *paper birziklatua* izatea proposatzen dut. Azken batean, nahiz eta kalitatea zerbait eskaxagoa izan, kostuak asko merkatuko lirateke, ingurugiroari mesede ederra eginez.

Besterik gabe, eta orain arte bezala gogor eta eguneroko informazioa jasoaz jarrai dezazuen animatuz agurtzen zaituztet. Zorionak egiten

duzuen lanagatik eta jarrai horrela. Esker mila.

Oharra: 79. Zenbakian Paper birziklatuari buruzko gutunean, papera biltzeko edo jasotzeko Arrasaten non eta norekin egin daitekeen galdetzen du, eta uste dut oraindik, Arrasate Pressen ez dela agertu honelako informaziorik. Beraz, eskertuko nizueke hortaz jabetu eta aldizkarian bertan argitaratuko bazenute.

Besterik ez, eskerrik asko.

U. B.

Parrokian gertatutakoari buruz

Irakurri dut "Parrokian gertatutakoaz" dakarzuena zuen aldizkarian: Arrasate Press. Ez dakit egia den. Hala bada, gure herriak duen aguntea ikaragarria dela esan daiteke. Españolei euskaraz erakusterik ez zitzaien gogoratu behintzat!


Beste gauza batzuk jakin nahi genituzke Arrasate Presseko irakurleok:

- 1.- Zein hizkuntza erabiltzen du elizak katekistak gertatzean edo katekista eskolan?
- 2.- Zein hizkuntzatan antolatzen dituzte teologia eta beste olako hitzaldiak antolatzen?
- 3.- Erelijosok eta monjek zer egin dute euskararen alde?

Beste galdera asko dauzkat egiteko... zenbat irain eta burla egin zaigun! Eta gero harro azaldu...

Parkatu.

M. Elizondo




Zer paktu nahi zenuke gobernurako?



Elsa Rosa Soto
(joskina)

Niri berdin dit, baina orain arte hain egonkor egon denez, jarrai dezatela, eta alderdi abertzaleen artekoa izan dadila.



Jabier Galvez
(langilea)

Aukeratu dutena ez zait txarra iruditzen, PSOE eta EAJren artekoa. Ez dut politikaz asko ulertzen, baina uste dut ez dagoela gaizki.



Marisa Karrikondo
(langilea)

Bada, ez dakit politikaz, baina HB, EE, eta EAJren artekoa.




Nando Lage
(garraiolaria)

Ados jar daitezela euren artean. Niri politikak ez dit gehiegi ardura, baina ados jarri eta herriarentzat, guretzat onena dena egin dezatela. Bat etor badaitezke, zoragarri, denok horixe nahi dugu eta.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

Memesa

79 42 22

**701 MAILAKO
BITXITEGIA**

NAROKI

Erdiko Kale, 23. Tel.- 792047 ARRASATE

ERLOJUTEGI



BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	79 97 22
	79 97 33
	79 97 44
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



9

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Don Juan, mi querido fantasma", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Days of Thunder", 10.30etan.
- Arratsaldeko 7etan AED elkartearen Batzar Orokorra eta ondoren afaria.
- Arkarazon jaiak: 8etan etxalferu jaurtiketa, eta gaueko 11etatik aurrera dantzaldia "Korkoil"ekin.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

10

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Days of Thunder", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Days of Thunder", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Bideo emanaldia Monterronen arratsaldeko 4.30etan, "Astakiloen abenturak eta kalenturak".
- Espeleologia ikastaroa Besaide elkartearen, arratsaldeko 4.30etan.

- Arkarazon jaiak: arratsaldeko 4retan autokrossa, gaueko 11etantxerri harrapaketa, eta erromeria "Izadi" rekin.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

11

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Days of Thunder", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Days of Thunder", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Arkarazon jaiak: 1ean bertsolariak, Arantzazu Loidi, Jon eta Aitor Sarasua, Jon Iñaki Izarrelaia, eta Rikardo Gonzalez de Duranarekin. Arratsaldean haurren jokoak, "Korkoil" ekin dantzaldia, eta bolo txapelketa.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marina.

12

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Days of Thunder", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Days of Thunder", 7.30etan.
- "Giza eskubideak espetxean" izenburupean, hitzaldia

- arratsaldeko 7etan.
- Arkarazonmeza, afaria, eta erromeria.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

13

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Days of Thunder", 7 eta 9.30etan.
- "Euskal Herriko uraren inguruan" izenburupean hitzaldia Monterronen, UEUK antolatuturik. 7.00etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

14

ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

15

OSTEGUNA

• • •

- "Droga prebentzioa"z hitzaldia AEDn, 3.00etan.
- Zine Kluba: Drugstore Cowboy. 8.30eta.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

Kirol Agenda

FUTBITOA

FUTBOLA

• • •

- Atxabapelko futbol zelaian San Andres- Abetxuko, igandean arratsaldeko 3.45etan.

- Zaldibarko txapelketaren barne, 30 partidu ostiraletik igandera bitartean Zaldibarko frontoian, Musakolako kiroldegian eta Santa Teresa ikastetxean.

SASKIBALOA

• • •

- Musakolako polikiroldegian arratsaldeko 6etan, Centraljet-Euskal Air eta Ordizia taldeen arteko partidua.

AUTOKROSSA


• • •

- Larunbat arratsaldean Arkarazon, 4etatik aurrera.

Liburuak

- Euskararako Hiztegia Oinarrizkoa

Bostak bat taldeak euskaraz behar beharrezko zen hiztegia kaleratu berri du. Euskarazko hitzei euskarazko definizio eta azalpena ematen zaie, bolumen bakar erabilgarri batean. Taldearen laugarren liburua duzu honako hau, *Sinonimoen Hiztegia, Euskararako hiztegia, Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna* kaleratu ondoren.




Ikastaroak

- Taila Ikastaroa

Uriburu kaleko tailerrean, eta Arrasateko Tailaginen Elkarteak antolatuta, goi mailako taila ikastaroa izango da azaroaren 10etik aurrera. Ikastaroaren iraupena 30 ordukoa izango da, eta kopuru mugatuak. Irakaslea Tomas Ugarte-mendia izango da, eta izena eman nahiz informazioa eskatzeko honako telefono hauetara dei egin dezakezue: 79 40 79 (Felix) eta 79 21 05 (Xanti).

- Ikerlan

Ikerlan kooperatibak ikastaro sorta antolatu du, Ikerketa eta Garapenean ari diren langile eta enpresen gestioan espezialista direnentzat zuzendurik, azaroan hasi eta abendua bitartean.



Erakusketa

"Arte Hamabostaldiko obrak"

Arte Hamabostaldia amaitu zen baina utzi du atzetik arrastorik, orduan egindako lanekin datorren astean erakusketa izango da eta. Estatuko puntu ezberdinetatik Arrasateko II. Arte Hamabostaldira etorritako artistek jendaurrean lan egin zuten, herriko giroan, jendearengan eta hotsetan oinarriturik, barrutik sortzen zitzaiena emanez.

Ana Laura Alaez bilbotarra, Sabin Egafia ofatiarra, Txuspo Poyo nafarra, Jose Boga, Luis Larios eta Angel Galipienzo madrildarrak eta Dani Laskurain bergararrak, egindako lanen artetik bana utzi dute Arrasaterako, egonaldia truke, eta erakusketan horiek eta beste batzuk ikusi ahal izango dira. Eskultura, pintura, argazkiak, eta instalazioak, material eta teknika ugari nahasten dira San Frantziskoko kalistrotetako lekalean.

Ikustera joan nahi duenak modu ona izango du hamabost egunez, arratsaldeko 6etatik 8etara.

Bilerak

- AED elkarteak bere urteroko bilera egingo du aste honetan. Ostiral arratsaldeko 7etan Monterron jauregian bilduko dira, urteko jarduna aztertu, aurrekontuak jorratu eta aurrera begira dauden asmoen berri bazkide guztiei emateko.

Bileraren ostean afaria izango da nahi duten guztientzat, 9,30etan, baina ez lehen iragarri bezala Apotzagako *Auzo Etxean, Eskola Politeknikoko Jangelan* baizik. Prezioari dagokionez, 1.500 pta inguru izango da, eta ikasle eta langabetuentzat 1.000.

Presoak

- 10 urte preso

Larunbata eta igandean hainbat ekitaldi antolatu da "Txarra" eta "Pedrotxo" preso arrasatearrak espetxean daukela hamar urte betetzen direla eta.

Beste gauza batzuen artean, larunbatean, eguerdiko ordubatean: **Herri bazkaria** (txartelak Irati tabernan), eta 7etan Manifestazioa Sebero Altuben.

Oldarra taldea Amaia Antzokian, 10etan.

Igandean: 5etan umeen-

tzako zinea Amaian. *Asterix eta Obelix* (erdaraz).

Getan Sebero Altube Plazan Presoen lanen **erakusketa**, Tunantes del Norte taldearen antzerkia eta *Itziar eta Amaia* Trikitilariak.

7etan Udaletxeko Pleno aretoan *Mireille Gleiman* eta *Jone Goizelaia* abokatuen hitzaldia.



Gida

Bilboko Artez euskara zerbitzuak **Euskal Profesionari eta zerbitzuen gida** kaleratu nahi du Durangoko Azokarako. Bertan profesionari, enpresa, merkataria eta zerbitzuak jasoko dira. Arrasateko datu bilketa AED Elkarteak egingo du, eta zure izena gidan ager dadin nahi baduzu, dei egizu AEDra (79 54 46) azaroaren 21a baino lehen.

Bikoizketa

- Ahots galduren bila

ETK Edertrack Bikoizketa-grabaketa estudioek izenburu deigarri hori eman diote pelikulen bikoizketarako gizonetzkoen ahotsak bilatzeko ekin dioten kanpainari. Eskatzen diren baldintzak: Euskaraz ondo jakitea, gizonetzko ahots sendo eta heldua eta alfabetatua izatea.

Kontratu eta soldatadun kontratua eskaintzen da, etorkizun handiko lan horretan..

Aipatu baldintzok betetzen badituzu, dei telefono honetara: (94) 441 57 62/66.

“.....
 Kooperatibismoak, aita Arizmendiarriztasun gaitzak, bizirik dauden mitoa ere baditu, hiru hamarkada baino gehiagotik Arrasate taldeak haragitzen dituen elkartasuna eta barne demokraziaren defentsan bizitza osoa eman duten profesionariak. Euretari bat Alfonso Gorroño goitia duzu, Arrasateko peritua, 54ean Ulgor sortu zuena”.

“54ean, Ulgor- geroago Fagor izango zena- jaio zenean, herri polita zen Arrasate, orain baino berdeago eta politagoa, eta konpartitutako baloren inguruan errotuagoa, nahiz eta agian ez izan gaur adinako aberatsa eta anitza’, dio Alfontso Gorroño goitiak, Arrasate taldea izenez ezagutzen den esperientzia kooperatiboa sortu zutenen artetik bizirik dauden hiruetako batek”.

(Eroskide aldizkarian)

“.....
 Eta bizkortasunaren markak hausten beste batzuk, eta atzo kaba eta kalkulagailuen bixamona izango zutenak, Arrasate Press astekari euskaldunekoak izan ziren. Hauteskunde egunean ez zituzten medio handiek bakarrik egin informaziorako desplieg handiak: Arrasateko aldizkari horretako talde gogotsuak ale berezia atera zuen, herriko hauteskundeen datu guztiekin, auzoz auzoko emaitzak eta alderdien balorazioekin”.

(Mikel Ezkiagak Diario Vasco egunkarian)

Zeintzuk dira eskola-antzerki astearren helburu nagusienak?

Bi hitzetan esanez: antzerkia eskolara eraman eta era berean eskola antzerkiera eramatea, horren bidez haurren artean antzerki zaletasuna piztu nahi dugularik.

Antzerkiaren aste hau abenduaren hamarretik hamalaura bitartean burutuko da. Eskolaurreko umeentzat txotxongilo emanaldia egongo da, “Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamia”. Txotxongilo lan hau eskolaurreko ikastetxe guztietan pasatuz joango da.


Eskolaurrea alde batera utzita abenduaren 10ean eta 11n Amaia antzokian Peter Roberts mimoak, “Azti muila” lana antzeztuko du, ikastetxe guztietako 4., 5., eta 6. mailentzat. “Bihar” antzerki taldeak ere 11n emango dio hasiera bere lanari, eta 12an bukatu, “Lantzeko bandoleroa” obrarekin. Abenduaren 13an “Kukubiltxo” taldearen lana hasiko da “Orreaga” obrarekin, eta hurrengo egunean ere Amaia antzokian izango dira.

Emanaldi horien helburu nagusia eskola eta antzerkiaren artean harremana sortzea litzateke, zaletasuna sortarazteko haurren artean. Ez dakit lortuko dugun zaletasun hori hedatzerik, baina ziur nago gutxienez batzuegan piztuko dela antzerkirako interesa. Gainera, kontuan hartu behar da antzerki emanaldiak ikusi aurretik, haurrek ikastetxe desberdinetan landuta izango dituztela, gero zuzenean ikusi ahal izango dituzten antzerki lanak. Beraz, ulertzeko orduan ez dute inolako zailtasunik izango. Lasaitasunez ikusi eta gozatzeko aukera izango dute.



Elena Lasa,
 Udaleko Hezkuntza teknikaria.


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
 79 14 01

ARRASATE

ORTZI
erretegia

Angiozar auzoa
 Tfnoa: 76 22 68 BERGARA

Aretxabaleta

Murrukixo taldeak Euskadi mailako IV Argazki eta Diapositiba lehiaketa antolatatu du. Gaia mendia eta natura izango da, eta aurkeztutako lanek inon aurkeztu gabeak izan behar dute. Sariak 20.000 eta 10.000 ptakoak dira, hala argazkitan nola diapositebetan ere. Lanak abenduaren 21a baino lehen bidali behar dira Aretxabaletako 34 Postakutxatilara Murrukixo Mendizale Elkartearen izenean.

Bestalde Aretxabaletako Arkarazo auzoan ostiraletik astelehenera bitartean jaiak ospatuko dituzte. Bolo txapelketak, erromeri, bertsolariak eta autokrossa protagonista izango dira, buzkan-tzekin ahaztu barik.



Aramaio

Auzoetako jaiak badaukate famarik alboko herrian ere, eta auzoen artean, jai tradizio handikoa Gantzaga da. Aurtengo Done Millan jaiak larunbat eta igande honetan izango dira, eta larunbatean, kanpai errepika eta etxafleruekin hasiko da festa. Meza ostean, 12.30etan Parapente jauziak Gantzagako haitzetatik. Arratsaldeko Setan umeen jolasak, eta Mus eta Tute txapelketa. Gauean dantzaldia *Kaixorekin*.

Igande eguerdian Gantzako 10. Zikloturisten lasterketa izango da, eta ondorengo auzo bazkariarekin amaituko dira aurtengoak.

Elgeta

Elgeta eta Bergaran erlijioaren inguruan diharduten talde batzuk polemika bizia sortu dute herri bietan, guraso talde bat eta taldeko gazte partaide zein Esteban Muni-lla Elgetako erretorearen artean.



Fanatismoa, gazteei burujatea egitea eta elizaren estamentuetatik at dabilen erakunde paralelo izatea egozten dizkio guraso talde batek antolakuntza horri, eta zenbait gazte baieztapen horien aurka aterata da. Diozesiaren postura eta erretorearen beraren azalpenak kale-ratzea falta da juzku garbiagorik egin ahal izateko.

Oñati

Oñatin *Saldu eta erosi ere euskaraz* kanpainari eman zaio hasiera aste honetan, Udalaren eta Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren bult-

zadaz. Kanpaina horren helburua merkataritzan euskararen erabilera bultzatzea izango da, eta herriko dendari denei egiten zaie dei parte har dezaten.




R

RICOH

Telefax-kopiagailuak

AITZINDARI!

1000 L telefaxa: laser-izpien bidezko inprimaketa edozein paperetan. Laser inprimaketaz gain paper arruntean, RICOHren oraingo produktu honek hainbat berrikuntza harrigarri eskaintzen du inprimaketaren kalitate eta iraunkortasunaren aldetik. Funtzio-aukerarik osoena ere badu, erabiltzaileei posibilitate multzo berria eskaintzen dielarik.



Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSarekin.
Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

FAX 1000 L. Laser

□ Kultur Gestioa

Kultur Bideetan-eko antolatzaileek, mintegi berezia prestatu dute *Kultur gestioaren oraina eta etorkizunerako perspektibaren azterketa* izenburupean. Azaroaren 14, 15 eta 16an Loiolako gogartetxean izango da, eta aztertuko diren puntu ezberdinen artean, Arrasateko herri komunikabideen esperientzia eta udal mailako komunikabideen promozioa ere aztertuko da.

Antolatzaileen esanetan, Euskal Herriko kultur mugimenduaren adierazgarri bizia izango da mintegia, Iparralde eta Nafarroako ordezkariak ere barne izango direlarik.

□ Sindikatuen emaitzak

Arrasaten Hauteskunde Sindikaletan orain arte izan diren emaitzei begira, eta 86an lortutakoekin gonbaratuz, datu hauek ikus daitezke:

ELA 65 izatek 56ra pasatu da. CCOO-k 44ra igo ditu iazko 40ak, eta UGT 37tik 25era jeitsi da. LABek, berriaz, 10etik 26rako igoera izan du, hila bete t´erdi falta denean bukatzeko.

□ Kultur programaketa

Azarorako Kultur programazioa dela eta Udalean 469.000 ptako zorra sortu da, eta urriaren 29ko Gobernu Batzordean defizit hori onartzea erabaki zen.

□ Dantza eta Argazkigintza

Gazte Zerbitzuak Euskal Dantza Herrikoiak ikasteko ikastaroa antolatu du, azaroaren 9an hasi eta Gabonak bitarterako. Lore Gazteak taldeak Herri Dantza, Mutil Dantza eta Larrain Dantza irakatsiko ditu, ostiralero arratsaldeko 7etatik 8.30ak bitartean.

Astelehen, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 7etatik 9etara argazkilaritza ikastaroa emango du ASA taldeko Joseba Vallesek. Izenematea 500 pezeta kostako da azken ikastaro horretan.

Txandaka

AEK EGUNA

AEK eguna, azaroaren 18an, Atarrabian, Iruñea ondoan, ospatuko da. Euskara nagusi izango dela esan beharrik ez dago.

Egun honetako egitarauaren saltsan, bi osagai nahasten dira, bata jai giroa, eta errebindikazioa bestea.


Alde batetik, bezperan, larunbatean, ospakizunari ekingo diogu, gaueko 9etan, Atarrabiko frontoian herri afaria eta horren ondoren, gau dantza izango direlarik.

18an bertan, fanfarreak, txistulariak, etab., eta 6etan Hertzainak taldearekin festa giroan murgilduko gara.

Beste aldetik, errebindikazio eguna dela azpimarratu beharra dago. Eguneko Lema, honako hau izango delarik: "*Euskarak AEK behar du*"

Asmoa, zera litzateke, lema honen barnean izkututzen den gure problematikaren berri ematea:

Euskarak AEK behar duela esaten dugu. Zergatik?: a) bada AEK delako Euskal Herri osoan euskara irakasten ari den erakunde bakarra,



Iñaki Saez (*)

baskongadetatik at Nafarroan eta Iparraldean ere euskara irakasten duelako.

b) Edozein ikasle kopururi euskara irakasteko prest dagoelako (HABEk ez ditu onartzen herri txikietan 48tik beherako ikasle kopurua dituzten euskaltegiak).

c) Uste duelako euskara dakien edonor gai dela ez dakienari irakasteko, HABEk, euskara tituluaz gain, erdi edo goi mailako ikasketak edukitzea exigitzen diolarik klaseak eman nahi duen edonori. Kontuan hartu behar da ere AEK edozein baldintzatan klaseak emateko prest dagoela, alde horretatik ere HABEk eskatzen dizkigun baldintzak askotan betetzen zailak direla, lokalen arazoa kasu.

d) AEK-k, elebakartasuna helburu, euskara komunikazio tresnatzat hartzen duelako, etab.

Atarrabiara hurbildu nahi dutenentzat, jakin erazten da autobusak egongo direla. Honi buruzko informazioa: 79 71 12 Euskaltegiko telefonora deituz, lor daiteke.

(*) AEKko irakaslea

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

Iosu
argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60



Zenbait posturi abenduan amaitzen zaio baimena

Azokako postuak lehian

Abenduko plenoan adjudikazioak egin nahi dira

Azoka plazaren postuen distribuzio berria onartu zen joan den asteleheneko Gobernu-Batzordean, eta horren arabera postuok betetzeko lehiaketa deitzea erabaki da. Iragarkia argitaratzen denez 20 eguneko epean proposamenak aurkeztuko dira, eta ondoren aukeraketa egingo. Datorren abenduko plenoan

erabaki beharko da eta adjudikatari berrien behin-betiko zerrenda.

Azokan bi motatako postuak bereiztuko dira aurrerantzeko postu finkoak eta kalez kalekoak, hain zuzen. Deialdiaren barruan, saltoki bakoitzak zein salgai mota edukiko duen ere zehazten da.

Postu kopuruak

Finkoak		Arraultzak	2
Harategi Urdaitegiak	10	Fruitu-lehor eta gozokiak	2
Makailu lehorra	2	Kontserbak	2
Okindegi eta esnekiak	2	Olibaranak	2
Oinetako konponketa	1	Patatak	1
Izozkiak	1	Letxugak	2
Arrandegiak	3	Lekariak eta eztiak	1
Kafetegia	1	Gazta	1
Garbitasunerako gaiak	1	Sendabelarrak eta dietetika ..	1
Kalez kalekoak		Loreak	2
Fruita eta barazkiak	7	Bisitena	1

Usteak uste

Datorren maiatzean udal hauteskundeak egin arte, Arrasateko PSOEek euskararen kontrako banderari eutsiko dio tinko. Bi erakunde salatuko ditu nagusiki: Arrasateko udala eta herriko komunikabideak. Ez dute, datorren hauteskundeak etorri arte itxaron. BBC telebistaren kamarak aurrean zaudela antolatzen zuten lehen zirkoa Udaletxeko Pleno Aretoran, Eusko Legebiltzarreko hauteskunde kanpainaren hasieran eratu prentsaurreka famatua Arrasateko eskualdelehenak salatuz, eta kanpainaren azken egunetan buzoneoa egin zuten herrian, Arrasate Press eta ATB euskaraz eta erdaraz eskatuz. Amaitzeko, arrazismoa gaitzesten zuten, nor bere burua euskaraz adieraztea arrazakeria balitz bezala.

Seguruena, botu gehiago irabazteko esperantzaren antolatzen dute estrategia antieuskaldun hau, baina, ez die emaitza onik eman. Arrasaten galdu egin dituzte botuak, Euskal Komunitate Autonomoan bezala. Bide batez, Damborenearen partiduaren emaitzak ere irakurri beharko lituzkete, bide horretatik joanda zer jaso daitekeen jakiteko.

Ez dago eskubiderik, bestalde, demokraziaren izenean, udalaren azken plenoan sozialistek erabili zituzten moduak eta hizkuntza erabiltzeko. Parlamentarismoaren tradizio luzeagoa duten herrietan, pleno aretotik egozteko modua izaten da eta bateren bat kalitatea sentituz gero, auzitegietara eramateko ere bai.

Jose Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



LEKIN

Ileapaindegi mistoa

Erguin 15 etxebehea,
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Sozialistek azken plenoan ere bereizkeria salatu zuten

Hizkuntza bereizkeriarik ez

Arartekoaren ustez Udalaren hizkuntz-jokaera zuzena da

Arrasateko Alderdi Sozialistako ki-deek Udalean euskaraz ez dakitenak diskriminatu egiten direla esanez Arartekoari aurkeztutako ke-xuak erantzuna izan du azkenik, hauteskundeak pasata eta espediente zenbakiarekin aurreko astean sortu zen hutsegitearen ondoren. Arartekoak Udalaren jokabidea zuzentzat jo du, espedienteari amaiera emanez igorri dion gutunean.

Hala ere, kexadunei igorritako erantzuneko zehaztapen eta gomendioak aintzakotzat har ditzan gomendatzen dio Arartekoak Arrasateko Udalari.

Sozialistek euren aldetik, azken Plenuan ere itzulpena eskatu eta Arartekoaren erantzunaren ostean Epaitegitara jotzeko ere prest daudela eman zuten aditzera, behin eta berriz bereizkeria salatuaz.

AED elkartearen bestalde, eta hauteskundeak pasatu artean kontu guzti horri baketan utzi nahi izan badio ere, gai honen aurrean duen jarrera agertzeko asmoa duela jakin arazi du, istilu guzti horrek euskarentzat eta herriko euskal giroarentzat sortu kaltea eta izan ditzakeen ondorioak ikusita.

Bankuko Lapurreta

Joan den asteartean lapurreta izan zen Arrasateko Banco Gipuzkoanoaren portaloiko bulegoetan. Eguerdiko 14.05ean jaso zen deia Ertzaindegian, baina ordu erdia inguru aurretik sartu ziren armatutako bi lagun eta langileak mehatxatu eta komunean sartu arazi ondoren, 3 milioi eraman zituzten. Bietako batek tiro ere egin omen zuen, baina kaskilorik inon agertu ez denez, bat behintzat fogueoko arma ote zen pentsatzen da. Ertzainek herriaren irteeretan auto susmagarria harrapatzeko kontrolak ezarri zituzten arren, ez detentziorik izan, eta lapurren erretrato robotat egiteari ekin zaio.


Gogoratu behar da Arrasaten eta inguruetan ez dela aspaldian banke-txeetan lapurretarik izan.

JAIOTZAK

Baskaran Garai *Xabier*, Urriak 18an
Maiztegi Etxeberria *Gorka*, 19an
Martin Garcia *Iban*, 20an
Olabarria Fernandez *Andoni*, 22an
Pampin Parmar *Sandra*, 23an
Kortabarría Iparragirre *Jon Ander*, 26an
Hurtado Pedrozo *Jabier*, 28an
Bikuña Ruiz *Aizibar*, 30an
Urrutia Tenea *Eneritz*, Azaroak 2an

Eskontzak

Juan Cruz Aranburu & Iziar Unzueta, Urriak 23an, Elizaz
Francisco Javier Gorroñoñoitia & Maria Rosario Beitia, Urriak 27, Elizaz.
Jose Antonio Galerno & M^a Soledad Bermejo, Azaroak 3an, Zibilez.



Nutrisan-Arrasate Zentru Medikoa

- Nutrizio eta dietetikako espezialitatea.
- Mesoterapia estetikaren tratamendua.
- Kirurgia estetikoa eta plastikoa.
- Elektroeskultura-gimnasia pasiboko mahala.
- RIA laborategia: analisi klinikoak eta alergia, Lagun Aro eta beste batzuk.

Ordutegia: goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara (aurrez ordua eskatu).


Kale-Aldea 11 etxabehea, Tfnoa: 79 65 78 ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

SASKI NASKI

Lehiaketa 1990

**OKENDO
KIROLAK**



Zatoz gurera  ikustera.
Banatzaile ofiziala

Jose Aranzabal
TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK



**ASTE HONETAKO
IRABAZLEAK**

▲
▲
▲

J. URIARTE

T A A

M PA A

Y PEL O



**ZEIN DA UMEEN
PROGRAMAREN
IZENA ATBn?**

ASTE
HONETAKO
GALDERA

SASKI NASKI ZOZKETAKo opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

ERANTZUNA:

Izena: Helbidea Tfnoa:

10 urte preso


Azaroaren 7an bete ziren zazpi urte Ramon Bidaburu "Txarra" eta Pedro Guridi "Pedrotxo" preso arrasatearrak espetxean daudela. Horren oroimenez ekintza sorta bat antolatu du Amnistiaren aldeko batzordeak. Gogoratu, bestalde, azaroaren 22an izango direla preso bi hauen aurkako epaiketak.

Drogazaleen familiei

San Andres taldeak, etxean drogararen arazoa bizi duten familientzat terapia taldeak ditu martxan, eta oraindik ere hurbildu ez direnei dei berezia egiten zaie. Monitoreak Gasteizko Proiektoko Hombregizakia Helburun dabilzan drogazaleen hiru guraso dira, esperientzia horretatik pasatakoak, beraz. Bilerak asteartetan izango dira, arratsaldeko 7etan, San Andres parrokiako lokaletan. Informazio gehiagotarako dei 79 19 21 telefonora, arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean.

Ingurugiro eskola

Azken gobernu batzordean Udalak Ingurugiro Eskolaren talde pedagogikoaren kontratazioa zehaztu zen. Horrela, pedagogi arduradunaren kontratua luzatzea erabaki da, eta beste irakasle bat dedikazio erdiz kontratatzea. Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin hitzarmena sinatzeko asmoa dago, hango ikasleek praktikaldiak Ingurugiro eskolan egin ditzaten. Azkenik, bi bekadun kontratatuko dira.



Uraren garestitzeak aurrezpena du helburu

Udal tasek %8,5eko igoera

Uraren galkarga eta hirilur kontribuzioa gora

Udalaren Plenoak, urriaren 30eko bileran onartu egin zuen Ordenantza fiskalen % 8,5eko igoera. Zerga berriak datorren urteko urtarrilaren lelik aurrea sartuko dira, eztabaida batzuen ondoren onartu direlarik. Igoerak igoera, Gipuzkoako beste herrietako tasekin gonbaratuz, mailarik bazuenean omen dago Arrasate.

Igoeraren ondorioz, honela geratuko lirateke tasa berriak:

Hilerria: Ehorzte eskubidea: 1.075 pta. hiribarruan eta 10.250 auzoetan.

Zabor bilketa: Hiruhilabeteko tasa

1.000 pezetakoa da herritarrentzat, eta prezio ezberdinak gero denda, taberna eta industriarentzat.


Uraren prezioa berriz, gutxiengoa m3ko 26 pta. kostako bada ere, hortik gora gastatzen duenari galkarga ezarriko zaio, %25 eta %28ko igoera jarri delarik. Neurri berri horiekin ura aurrezteko bideak topatu nahi dira.

Igoera jasan duen beste alor bat hirilur kontribuzioarena izan da. Izan ere, %50eko indizea lortu asmoz, %16an igoko bait da ondasun higiezinaren gaineko zerga.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA



Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Abendutik aurrera langilego berria izango du etxe horrek

Iturbiden lanpostuak

Monjen ordezkoko zerbitzua enpresa bati emango

Aste honetako Gobernu Batzordeak Iturbide Egoitzarako zerbitzuak izendatzeko lehiaketarako baldintza plegua onartu zuen. Karitateko Mertzedariek orain arte burututako lana uzteko erabakia hartu ondoren, orain arte ordena horretako 4 lekaimeak ordezkatzeko enpresa baten zerbitzua kontratatzea pentsatu du udalak, lanpostuen artean honako hauek bete beharko direlarik: 3 erizain, klinikako laguntzaile 2, garbitzaile 2 eta sukaldari 2, asteburuetako txandak ere antolatu beharko dituztelarik.

Gogoratu behar da monjen erabakia

beste herri batzuetako komunitateak berregokitzearen premiak sortu duela, eta erabakia alda zezaten ahalegindu ziren arren, ez da alde horretatik emaitzarik lortu. Hori dela eta jo behar izan da kontrataziora, kontuan izanik, gainera, abenduan amaituko dutela Arrasaten hasitako lana. Hala ere, ordezkoko zerbitzua abiarazai arte geratuko dira, eta langile berrien koordinatzaile bezala mertzedaria bat geratu da gainera.

Bukatzeko, langilego berria ez da banakako kontratazio bidez hartuko, enpresa bakarraren kontratazio bidez baizik.

AEK-Press

Arrasateko AEKk esperientzia polita burutu du bertako ikasleen artean. Duela aste batzuk kalean ikusi genituen argazki makina eta grabagailuarekin kazetari lanak egiten, eta egunotan lanaren emaitza ikusi ahal izan dugu. Erdiko kalean, parrokiako hormetan panel handia ezarri dute, AEK-Press izeneko aldizkari berriaren formato handia, alegia. Kalean egindako inkestak, eta bestelako kolaborazioak ageri dira bertan, eta oraindik ikusi ez baduzu, zoaz ikusitera. "Haragia jatea beharrezkoa al da?", "Zure gorputza zaintzen al duzu?" eta antzekoak galdetzen zizuzten eta baita AEK egunerako gonbidapena egiten ere.



ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA


I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxebeha, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80



Montjuic-eko igoeran izan ziren arrasatear batzuk, eta baita oroigarria ekarri ere! **Marino Lejarretak** Maritxu Kajoiri bidali nahi izan zion han irabazitako lore sorta, bere egunean etortzerik izan ez zuela eta. **Pako Azkonagak** ekarri eta ipini zuen Kajoiaeren ondoan, goizeko 3etan Bartzelonatik irten eta 7etan iritsi zirenean, zuzenean, beste egiteko barik, Maritxuri lorak eramatera.



Edorta Mendieta atxabaltarra ETBn ikusten ere ohitu gara ia. Hilabete inguru darama eguerdiko *Gaur Egunetan* kirolari dagokion tartea aurkezten, eta bere ahots sendoa ezagutzen genuenoi arraroa eta ezagutzen zaila egin zaigu telebistako irudi berria. Badoa ohituaz kamaren aurrean egotera, eta ETBko kirol berriemalleek asmatu duten entonazio arraroa aparte utziz gero, ondo egiten duela esan behar.



◀ **Iñigo Labaien, Joana Alberdi, Otsanda Bengoa eta Iñigo Garate**, Almeneko 7.Dko ikasleak izan genituen lehengoan ikustaldia egiten. Eurak ere erreportaiak egiten hastekoak omen dira, eta gustora ibili ziren Arrasate Press nola ateratzen dugun ikusten.




Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

Marcos Vitoria eta Mercedes Jauregi bisitan etorri zitzaizkigun. Aspaldian Arrasatek kanpo bizi dira, Toulousen, eta astero jasotzen dute Arrasate Press. Egun batzuk pasatzera herrira etorri eta eskerrak emanez, non ateratzen den ikustera hurbildu ziren. Eskerrikasko bisitarengatik! ▶




1200 PROPIOAK

● **JUAN LUIS AZKARATE**, 25, arrasatearra Deba Garaiko enpresa eta aktibitate berriei buruzko ikerketa egiten ari da. Juan Luisek Leioan egin zituen Kazetaritza ikasketak eta Arrasate Press eta Eginen lan egin du.

● **ROBERTO TELLERIA**, 45, bilbon jaio eta umetatik Arrasaten bizi den arkitektuak egingo du Mugarrite inguruaren urbanizazio proiektua eta bide gorria. Robertok Madrileko Arkitektu Eskolan egin zituen Arkitektura ikasketak, eta beste lan batzuen artean Zaharren Egoitza, Arimazuri Plaza, eta Santa Agedako Psikiatrikoaren proiektuak egin zituen.

● **PATXI URIBARREN**, 48, Aramaioko Etxaguengoak, Euskararako Oinarrizko Hiztegia atera du, Bostak Bat taldearekin. Patxi Teologian eta Linguistikan lizentziatua da, eta Bizkaiko Foru Aldudian ari da gaur egun itzultzaile lanetan. Euskaltzain urgazlea da eta Aramaioko toponimiari buruz egin zuen Lizentziaturako tesia.



Eugenio Zabala

arrasatearraren postala jaso dugu, eta Arrasate Press Ingalaterran ere jasotzen dela kontatzen zigun York Unibertsitatek bidali digun argazki politean. Akordatzea ere!



Epelide

Antonio Castillejo eta Juli Rubio dira argazkiko bikotea. Non ezkondu ziren eta bidaia nora egin zuten ez badakigu ere, ezkontza maitzaren 12an izan zenez, etorri izango dira, zalantza barik. Zorionak, bada, eta urte askotarako! ▶

Adi!

INGELESA


Edozein maila

ORDUA: **Goizeko 10ak eta 12ak artean Arratsaldeko 2ak eta 4ak artean.**

Aproposa: **etxekoandreeztzat, langabetueztzat ikasleentzat, dendarietzentzat eta ordu horietan libre dauden guztientzat**

PROMOZIOZKO PREZIOAK

Araba Etorbidea 4,
Tfnoa: 79 01 32
ARRASATE





ETXE-AUNDI
Dastapen-menua
azaroaren 16rako

- * Itsaskien entsalada belar finekin
- * Ahate ragout-a letxua hostotan.
- * Legatza piperrada gainean.
- * Etxe Aundi gozoteria.

3.500 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Atzerrian ikasten dut

Injinerutza amaitutakoan atzerrian jarraitzen dituzte batzuk ikasketak, aurten 53 lagunek Eskola Politeknikotik


B atxilergoa amaitutakoan hiriko unibertsitate-ra beste asko bezala, injinerutzako proiektua egindakoan Frantzia, Ingalaterra, Suitza nahiz Italiara joaten dira batzuk. Ikasitakoa herrira ekartze-ko ilusioz doaz.

Hasiera haietan

Lehen aldiz, eta antolakuntza berezi barik, 1972an joan ziren Eskola Politeknikoko bi ikasle Toulouseko unibertsitate-ra, kooperatibetako enpresa batetik fakultatearekin zuen harremanari esker. Harrez gero, jende gehiago hasi zen joaten, eta orain bost urte ohartu ziren Eskolako arduradunak, kanpora zihoazenen kopurua asko ugartu zela eta, guzti horri nolabaiteko antolakuntza eta egitura ematearen premiaz. Horrelaxe sortu zen *Goier* (Goi mailako ikasketak erbestean), estudiatzeko ahalmena azaldu duten ikasleei kanpoan ikasketak ja-

rraitu eta espezializatzeko aukera emateko asmoz. Frantzia, Suitza, Britainia Handia eta Italiako hainbat eskola eta unibertsitatekin daude harremanetan, eta baita zenbait harreman puntual Canada eta Estatu Batuekin, eta aurrerantzean Alemania eta Dinamarkarekin ere. Trukatzeak ere egiten dira, kanpoko ikasleek ikasketen amaierako praktikaldiak hemengo enpresetan egin dituzaten Injinerutzako ikasketak egitera datorrenari, proiektua egin aurretiko urtera arte ez zaio izena emateko aukera ematen. Izena emanda daudenetatik aukeraketa egiten da gero, bako-

tzaren historiala aztertu eta joerak ikusirik hautaketa egiten. Azken urtean joanak 25 inguru dira, eta dagoene-



Newcastle-n badira Eskolako bi ikasle

ko aukeratuta daude, urtebete lehenagotik, hurrengo ikasturtean joango diren 36 berriak, oraindik ere hemen proiektua egiten ari direnak.

Aukerak eta baldintzak

E gin asmo duten ikasketak mota eta hartarako aukeratu duten unibertsitatearen arabera, urtebete, urte t'erdi nahiz bi urte egingo

ko modua: informatika, produkzioa, mekanika eta elektronika lan daitezke atzerrian ere.

Ikasketak zabaltzeko modu hori badagoela jakinik, Eskolan hasten den edozein ikasle has daiteke etorkizunerako posibilitate hori aztertzen, eta bide batez atzerriko hizkuntzak lantzen. Izan ere, horixe da gerora beharbada eskatuko zaion baldintzetako bat. Ingelesa, frantsesa edo alemaniera jakin beharko ditu, baldin eta kanpoko unibertsitateotan arazo barik moldatu nahi badu, joan eta berehala hizkuntza horretan eskola hartzera ohitu beharko du eta. Horrexegatik egiten da aukeraketa ere urtebete lehenago, hizkuntza ikasteari denbora eskaini diezaioten. Hala ere, aurreneko hiru hi-

Hizkuntza menperatzea ezinbestekoa da unibertsitatean ondo moldatu ahal izateko

dituzte atzerrian kanpora doazen ikasleek. Espezializazioari dagokionez, hemengo guztietan dago sakontze-

labeteetan nahiko gaitza da moldatzea, eta arazoak izaten dituzte hango heziketa sistemara nahiz hizkuntza ezezagunean jardun behar izatera ohitzeko.

Bizimodua garesti

Herri batetik bestera ezberdina da ikasleentzat bizilekua topatzea. Herrialde askotan, aurrenengo joan zirenek aurkitutako pisuetan jarraitu izan dute ondoren joandakoek. Denen artean errenta ordaindu eta elkarrekin bizi izaten dira. Unibertsitate berriekiko lehen kontaktuetan erresidentzia bilatzeko ahaleginak egiten dira. Gestioak Goierrek egiten ditu, eta baita ikasleek ere euren aldetik, zer nahiago duten ikusiaz.

Orain lau bat urte hasi zen Europako Komunitatea Ikasketetarako trukeak egiteko *Erasmus* programarekin, eta horren barruan, bekak sortu dira, ez kanpora joateko bereziki, kanpoan ikasteak dakarren gastu ugarritasunak nolabait ordaintzeko baizik. Normalean berrehun mila pezeta inguruko laguntza izaten da soilik, eta aurrerantzean Jaurlaritzatik eta Diputazioetik eta baita kooperatibetako fondu sozialetik nahiz Arrasateko Udaletik ere.

Hala ere, garesti ateratzen zaio ikasleari edo bere familiarik ikasketak kanpoan egitea. Herrialdearen arabera kopuruak aldakorrek badira



Eskumatik hasita, Osane Lizarralde arrasatearra eta Alberto Arenaza atxabaltarra Suizan

ere, batekoz beste bederatziehun mila eta milioia eta hirurehun mila pezeta inguru kostatzen da urtea.

Zerbitzu baten truke

Joxe Mari Zabalegik, Goierren arduradunak esan digunez, ikasleak ez dira besterik gabe ikasketak kanpoan egitera joaten. Gero Euskal Herrira zerbitzu bat ekartzeko ideiarekin joaten dira: hitzarmentxo bat egiten da ikasleekin, han ikasi ondoren Euskal Herriko enpresa batera ekar ditzaten han egindako ikasketak, bost bat urterako edo. Administrazioaren dirua, diru publikoa denez, bidezkoa da berriz ere herrira itzultzea. Bide horretatik, eta taldean sortu nahi den berdintasun eta elkartasun zentzuarengatik, lortzen diren dirulaguntza guztiak denen artean banatzen dira. Gazteek borondatez onartzen dituzte arau hauek.

Kontakatu aldizkaria

Toulouse, Grenoble, Nantes, Paris eta Bordelen artean banaturik, 21 ikasle dira orain Frantzia daudenak. Britainia Handiak, berriz, Stafford, Nottingham, Manchester, Newcastle, Cranfield eta Yorken hartzen ditu Eskolako ikasle ohiak, 17 guztira. Horiekin batera Suizako Lausanan diren 7 eta Italiako Florenzia eta Milanoko 8 lagunek osatzen dute aurtengoan kanpoan diren ikasleak, arrasatear nahiz beste herri batzuetakoak. Hauexek dira Eskolak ateratzen duen *Kontakatu* aldizkariaren protagonista nagusiak, eta euren bidalitako idazlantxo osatzen da alea. Eguneroko bizitza, eritziak, ikasketak nola doazen, leku bakoitzeko ohitura eta ikasketaren sistemaren berezitasunak, denetarik agertzen da alaitasunez adiskide bati bezala zuzendurik eta nahi baino maiztasun gutxiagoz atzerriatik iristen diren gutunotan.

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**


J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

**BRANKA
jatetxea**

Eguneko menua eta karta


DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hitzegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzazokie Euskarari Hitzegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzko dotore eta, aldi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntzilamuzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak estarpazioekin.
- Landare-haritz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hazur kolorekoa.
- Fotokoposizioa bi zutabetan egin, tipografia edor eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik hardiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

DICCIONARIO ANUAL DE AUTORIDADES DEL EUSKERA




Euskara ikasteko erabili beharreko obra

LASTER PREZIO IGOERA

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93



Joseba

Iñakik badu bihotzik

Iruña saria irabazi zuen iaz

Iñaki Mendiguren ezkiotarrak, aspalditik Arrasaten bizidenak, abenduan "Kafe Iruña" nobela lehiaketa irabazi zuen, "Haltzak badu bihotzik" lanari esker. Filosofia eta letretan lizentziatua den gizon honek, bere burua morroi tristetzat edukitzeaz gain, ez du uste idazlea denik. Elkar argitaletxeak "Haltzak badu bihotzik" nobela argitaratu berri dio.

— Gustora zaude argitalpenarekin?

— Bai, liburuarekin oso gustora gelditu naiz, baina orain ez nuke beste bat hasiko. Ez daukat neure burua idazletzat 90 orrialdeko liburu bat idatzi dudalako, asko kostatzen bait zait idaztea. Gauzak nire gustora gelditu arte ez ditut ontzat ematen. Ordu asko sartu behar izan ditut nobela idazteko. Literatura gustatzea gauza bat da, eta

OBRAK DIRELA ETA ERDIKO KALEAN GAUDE

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23



beste bat idazteko erraztasuna edukitzea.

— *Literatur-zale ageri bazara, irakurle amorratua izango zarela pentsatzea gehiagi litzateke?*

— Beno, asko irakurtzen dut baina ez nik neuk askatasun osoz aukeratuko nukeen literatura. Lanak baldintzatuta asko irakurtzen dut, zer itzuli aukeratzeko materiala esate baterako. Baina horrela, gustoz eta atseginez aukeratu-tako literatura ez pentsa gehiagi denik irakurtzen dudana. Zerbait bai, baina asko esateko bezala ez.

— *Nola ikusten duzu euskal literatura?*


— Oso zaila egiten zait horri erantzutea. Ez dakit momentu txarrean ala onean gauden. Erantzuna ere oso erlatiboa da, konparatzeko zein erreferentzi puntu hartzen den arabera. Historia hartuz gero, euskal literaturan azkenengo 30 urteetan aurreko 400 urteetan egin dena baino askoz ere gehiago egin da, eta hori ezin da ukatu.

Une honetan uste dut beste herri batzuetako literaturarekin konparatzerik ez dagoela, konparazio hori oso zaila da. Hala ere, ez dut uste gauza on asko egiten denik, pare bat edo hiru idazle daude punta-puntakoak eta gainerako guztiak mediokre samarrak.

Euskal literaturaren oztopo handiena irakurlego eza da

— *Beraz, ez zaude baikor euskal literaturaren etorkizunari begira?*

— Nik uste dut inportantea idaztea dela eta genero guztiak lantzen hasiko den jendea egotea, nolabait erresistentzia gisa, dagoen mailari eustea eta gero irakurlegoa zabaltzea, zeren uste bait dut euskal literaturak duen oztopo edo arazorik handiena irakurlego eza dela. Jendeak ez du irakurtzen, liburua ez da hartzen kontsumitzeko gai bezala, horrek merkatua baldintzatzen du eta merkatuak eskatzen ez badu literatura asko



Iñaki Mendiguren

eta oso ona egitea ez da bat ere erraza.

— *Ez dela irakurtzen esan duzu, baina dirudienez zure liburua irakurtzeko gogorekin dabil jendea, behintzat Deba Garaikoa. Ez da kontrastuana?*

— Bai, baina hori alde batetik lokalismoa da eta neurri handian morboa ere bai.

— *Orain itzulpenen munduan sartuta zabilta ez?*

— Itzulpengintzatik bizi naiz, bai. Aspertuta nengoen irakaskuntzan, damututa ez, oso urte aberasgarriak izan direlako eta satisfakzio handikoak, baina nekagarriak ere bai. Jendaurreko lan gehienak bezala, irakaskuntzak asko eskatzen du, niretzat stressantea eta nekagarria da, zuzendaritza gainean, ikasleak aurrean, eta norbera hor tartean.

— *Eta itzulpengintza nola ikusten duzu?*

— Geroz eta hobeto itzultzen dela uste dut. Nola hartzen dudan? beno, administrazio edo testu teknikoak itzultzerik ez zait batere gustatzen, baina horiek dira dirua ematen dutenak. Nola-bait literatura arloekin uztartu beharra dago.

— *Posible litzateke Deba Garaian itzultzaile enpresa bat ondo ateratzea?*

— Baietz uste dut, hemengo enpresa asko prest daude eta, euskararen alde dirua gastatzeko. Ez dakit zenbat jende bizi ahal izango den hortik, baina uste dut batzuk tokia izango dutela, bide hori ez da gehiagi urratu eta.

Kritika

Haltzaren bihotza zertan den

Ezusteko eder-atsegina jaso genuen Iñaki Mendiguren itzulpen eta euskalgintzan (Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen, Arrasate Press astekararen) ezaguna genuenok literatura mundura jauzia egiten zuela jakitean. Eta ez edonola, alajaina! Alde batetik, nobela batez egiten zuelako bere bataioa (eta ez gurean hain arrunta den ipuin-bildumaz edota poema liburuz); eta bestetik iazko «Cafe Iruña» nobela laburrendako saria eskuratuz zuelako bere estraineiko lan honekin.

Sari-ematearen osteko elkarrizketetan nobelaren argumentua azaltzean halako jakimina zabaldu zen: nola tratatuko ote du euskal idazle batek gure gizartearen tabu aitortzezin biren nahasketa hori? Zein ikuspegiz kontatuko ote digu irakasle-ikasle bikote baten maitasun harreman homosexuala? Mirande berria ote dugu? Irakurle bakoitzak erantzun ezberdinak izango ditu galdera hauek; neurea ematen saiatuko naitaizue.

Argumentua nahiko sinplea da. Edozein maitasun istorioren prozesuan eman ohi diren pausuak azaltzen zaizkigu: iniziatiba irakaslearen esku egonik, ikaslea bereganatuz joango da eta harreman gorabeheratsua gauzatuko biren artean (bukaera, irakurle non-zer-berrientzat gordeko dugu). Mundu narratiboa ia irakasle-ikaslearen ingurura eta ikaslearen familiara mugatzen da; dramatismotik eta gizarte-salaketa hutsetik ihesi, semearen arazoaren aurrean bihotz-zabal portatzen den ama aurkezten digu Mendigurenek eta ez du hortik kanpoko jendearen balizko erreakzio zalapartasuei kasu larregirik egiten. Izenburuaren esanahia bide batez azalduz, honela planteatzen digu gaia: «Mendez mende besterik errepikatu denean, nekeza da haltzak ere bihotzik baduela sinestertztea, nekeza arauz kanpo bizitzea» (36).

Baina ez bide da arazoaren kanpoaldea nobelagilea gehien arduratzen duena, nobela osoan zehar barne prozesua bait da nagusitzen dena. Narratzailearen aukeraketa datza, ene ustetan, onerako eta txarrerako, nobelaren giltzarria: irakaslearen ahotsari ematen dio lehentasuna Mendigurenek -berau narratzaile bakarra delarik-, beste aukerak (istoriotik kanpoko hirugarren pertsonako narratzailea, protagonista bien ikuspuntuak nahastea...) baztertuz. Eta aukera honek baldintzatu egiten du nobelak damaiguna: eritzi, ikuspegi ezberdinek emango lioketen sakontasuna eta eraginkortasuna galduz agian, intimismo eta sujerikortasunean irabazten du.

Hizkeran ere badu zer ikusirik egindako narratzaile aukeraketak, eta gurako nuke ohar-txo honen harira euskal narratibaren -oker ez banago- orokor samarra den arazo baten gaineko komentaketa. Ez dakit oso gaitetik berba egitea den honela esatea, baina beldur naiz ez ote garen gutxitxo arduratzen kontaktaren ahotsak eta bakoitzari dagokion hizkeraz. Oso maila altuan eta dotore aritzen da Mendiguren euskaraz, gune hungiarriak sortuz zenbait deskribapenetan; baina esateko nago erabili duen hizkera gehiago zegokiola agian hirugarren pertsona bateko narratzaile bati, pertsonaia baten ahoan jarritako ihardunari baino. Kritikoaren burutzioak, badakik, Iñaki!

Eta bukatzeko, zer esan: amen batean irakurtzen den nobela gustagarria dela eta honez gero hire bigarrenaren zan gaudela.

Gerardo Markuleta



Haltzak badu bihotzik

Eta noizbait, sarrerako atearen hots urruna; eta laster, nire ondoan ohe barrura irristatzen sumatu zintudan, bihotz-lapur hori! Esnatu gabe, amets bat bezala, inoiz zimeidu behar ez zuena birloratu asmoz, elkar besarkatu genuen, oroitzapen zaharrak betirako uxatu asmoz. Guztiz esnatu nintzen orduan, beste mundu batera baina.

Larrugorritan, lizun, biluztasunaren lotsa zinen. Gelako lanpara itzalita, kanpotikoaz, argitzal goxoa genuen inguruko giro erdiluna. Laztan, zirri ikarati eta iheskorretara ausartu nintzaizun. Zurrun eta gogor, erruki eta barkazio eske bezala, begiratu zenidan mantso. Sukaldetik whiskyarekin itzultzean, ohe gainean etzanda, aurpegia burkoan sarturik, zotinka aurkitu zintudan. Nire afektu-sentimenduak mugagabe hazi ziren orduan. Maindireaz estali eta munduko samurtasun guztiaz estutu zintudan. Zerk eragiten zizkizun malko haiek? Leizezulo ezezagunaren aurreko beldurrak ala zorion-susmoak? Nik urtebetez irrikitan amesturiko laztanak eta muxuak oparitu zenizkidan.

Zigarro bat piztu genuen eta, ohean eserita, ahotik zerigun keaz hasi ginen jolasten. Bana genituen, baina biok edalontzi beretik edan genuen lotsa galtzearen edo intimitate bila. Irribarre eta algara artean, pixka bat baizik ez zen hondarrean, hartu eta dena aurpegiratu nizunean likorea. Une berean, zuk zirkinik egin aurretik, muxuka irentsi zintudan, gainera isuritakoa xurgatuz.

Neure kontra gogor baina eztiki estutuz, sekretuak, isilpeko kontu politak xuxurlatu nizkizun, ordura arte beti gordeak izan nituenak. Oi, urrutiko ene adiskide mina, momentu haien ametsezko zoragarritasuna berbizi ahal izango bagenu gaur!

Gorputza omen amodioaren ibilgailua. Eta bion gorputzak gurutzaturik, gau-itzala genuela lagun, paradisu galduak -bilatzea merezi duten bakarrak- aurkitu genituen elkarrengan. Leun, zure gorputz beltzarana ikaraz, izter guriak eder, amets-bideetan galdu ginen. Ezpain likitsak, esku trebeak, atseginetan jakintsuak. Nik zurekin eta zuk nirekin bat egin eta gorputzak elkarri emanaz, bata besteaz jabetu eta haragiaren atsegina dastatu genuen plazer-gurariak asetu arte. Mintzatu ere egin ginen, hitz asko ez, baina garrantzizkoak. Eta noizbait loak hartu gintuen biok, egunsentiaren lehen argiak zazpigarren zeruko izarrak izaltzean.



ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Irak

— Nik usie dit inprimenak ezizate
ezizate inprimenak ezizate inprimenak
ezizate inprimenak ezizate inprimenak
ezizate inprimenak ezizate inprimenak



Gipuzkoako Foru Aldundia

ESTETIKA ZENTROA

Intundegia, optikak, jostalariak

Z A R R A O A

Kapantsoa 4. Tira, 70-72-74

1990eko azararen 15




Bustita, baina jokoan

Atsedetik ez, joan den asteko zubian

Pasa den asteburukoa zubi luzea izan bazen ere, ez zuen horregatik atsedetik hartu Zaldibarko futbito txapelketak. Epeak bete behar direla eta Zaldibarko txapelketa antolatzen dutenek, hasiera hasieratik garbi utzi zuten astero jokatu beharra izango zutela izena ematen zuten guztiek. Horrela ulertu zuten astero-astero praka motzak jantzi eta baloitxoaren atzetik korrika ibiltzen direnek, eta ostegunetik igande artera Arrasateko frontoi zaharrean makina bat partidu ikusteko aukera egon zen.


Txapelketari huts egiteko zubiarena tentazio handia bazen eta egun horietan egin zuen eguraldi euritsu eta hotza ez zen txikiagoa. Hala ere, talde guztiek zegokien orduan agertzeko ausardia eduki zuten. Garaile zein galtzaileei zorionik beroenak, azken finean garrantzitsuena parte hartzea bait da.



ILLARRAMENDI

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



IGAMO Kartonaiak S.A.

Kaxa tolesgarrien fabrikazio
kartoitxo eta mikroildotan.
Offset inprimaketa

Goia in industrialdea, Tfnoa: 945 - 45 54 52, Faxe: 45 54 82 LEGUTIO



A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Atutemelele	5	5	0	0	30	9	10
Bizkorrak	5	5	0	0	27	10	10
Golfos Persicos	5	4	1	0	30	9	9
Zortzikin nahiko	5	4	0	1	36	16	8
Kakajauri	5	3	0	2	15	16	6
Autovia patutia	5	2	1	2	18	24	5
Potrosorri	5	2	1	2	12	19	5
Bar Alcalde	5	1	1	3	17	29	3
Ugarixoak	5	1	1	3	11	18	3
Ezkinako ontzak	5	1	1	3	10	16	3
Cañ. Pto. Urraco	5	1	1	3	9	13	3
Mutikotes	5	1	0	4	11	16	2
Yokese	5	0	2	3	5	17	2
Bayern de Leniz	5	0	1	4	8	27	1
Totala	70	30	10	30	239	239	70

B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Zuloak	5	5	0	0	34	13	10
Laso Arregi	5	4	0	1	35	15	8
Arrasate Kirolak	5	4	0	1	20	14	8
Los Heredia	5	3	1	1	33	13	7
Fut. Club Lobo's	5	3	1	1	21	17	7
Kriskibalda	5	3	0	2	12	16	6
Okendo Kirolak	5	2	1	2	21	22	5
Aizpun bila	5	2	0	3	23	20	4
La ira de Odin	5	2	0	3	20	16	4
Toki Eder	5	2	0	3	17	27	4
El Regreso	5	1	1	3	20	24	3
Solano 90	5	1	0	4	22	22	2
Resakas	5	1	0	4	19	43	2
Gimnasio Saioa	5	0	0	5	7	42	0
Totala	70	33	4	33	304	304	70

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Fosforos	5	5	0	0	43	20	10
Alperrak	5	5	0	0	41	9	10
Pépelus	5	4	0	1	20	17	8
Sannan Hussein	5	3	1	1	17	12	7
Zelai	5	3	0	2	36	19	6
Diego Antonio	5	3	0	2	31	23	6
Artano	5	2	2	1	29	17	6
Steaua del grifo	5	2	2	1	14	16	6
Muru barren	5	2	0	3	15	17	4
Neptuno	5	1	2	2	13	22	4
Bar Kajoi	5	1	1	3	23	18	3
Kannabis boys	5	1	1	3	21	33	3
Los motz	5	1	0	4	23	30	2
Bacilona	5	1	0	4	19	35	2
Danok lagun	5	1	0	4	14	29	2
M.G.M.	5	0	1	4	9	51	1
Totala	80	35	10	35	368	368	80

D taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	5	5	0	0	46	14	10
Camerun's	5	4	1	0	39	9	9
Artzanko's	5	4	1	0	33	11	9
Adelaida	5	4	0	1	43	14	8
Potroak	5	4	0	1	34	18	8
Sisepuede	5	3	0	2	17	7	6
Balaiké	5	3	0	2	16	21	6
La ban. de Pepe	5	2	1	2	20	25	5
Babarias	5	2	1	2	15	19	5
Gau azkenak	5	2	0	3	16	14	4
Rayo Vatika-no	5	1	0	4	18	33	2
Gastaos	5	1	0	4	16	33	2
Inter de alimañas	5	1	0	4	12	37	2
Avinagraos	5	1	0	4	12	24	2
B.B.V.	5	1	0	4	11	39	2
Sukumurus	5	0	0	5	10	40	0
Totala	80	38	4	38	358	358	80



Kontzezino kalea 6, Tfnoa: 79 25 98

Arrasate


OPTIKA - OFTALMIKA

ERABILI ETA BOTATZEKO
LENTILAK.
ESKATU INFORMAZIOA

KAJOI

TABERNA

Erdiko kale 22, ARRASATE





Zaldibarko bezalako txapelketa bat ondo joan dadin ezinbestekoa da arbitroei kasu egitea, inolako iskanbilarik sortarazi barik. Argazkiko jokalariek arbitroarekin ados egon zitezkeen, edo ez, baina burua makurtu eta agindutakoa betetzea beste erremediorik ez zuten izan.



**LOPEZ
BIZIKLETAK**

Alfonso X Jakintsua 6,
Tfnoa: 79 96 35 ARRASATE



**Strategi
Kafetegia**

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**J. ANTONIO
HERNANDEZ**

*Banatzaile ofiziala:
Aguila eta Heineken
garagardoak, Majuelo
eta Cigales Frutos
ardoak.
Coca-Cola makinaren
instalazioa
Informazioa:*

**MESON
MANOLO**

E maitzak

A taldea

Golfos Persicos 5	Kakajauri 1
Cañon Pto.Urraco 0	Autobia patutia 3
Atutemelele 7	Bayern de Leniz 1
Eskinako ontzak 1	Ugarixoak 4
Zortzikin nahiko 10	Potosorri 2
Bizkorak 3	Mutikotes 0
Bar Alcalde 1	Yokese 1

B taldea


Zuloak 8	Los Heredia 2
Solano 90 11	Gimnasio Saioa 3
Lobo's 5	Aizpun bila 1
Arrasate Kirolak 4	Okendo Kirolak 2
Laso Arregi 1	Kriskibalda 2
Toki Eder 5	El regreso 2
Resakas 2	La ira de Odin 8

C taldea

Alperrak 4	Bar Kajoi 3
Steaua del grifo 4	M.G.M. 4
Sannan Hussein 6	Muru Barren 4
Diego Antonio 6	Neptuno 4
Fosforos 10	Bacilona 2
Kannabis boys 7	Los motz 9
Zelai 1	Pepelus 5
Artano 4	Danak Lagun 3

E taldea

La banda de Pepe 8	Gastaos 4
Argi ibili 9	Adelaida 3
Potroak 2	Babarias 6
Avinagraos 2	Rayo Vatica-no 4
Sisepuede 0	Balaike 1
Camerun's 12	Sukumurus 1
Inter de Alimañas 1	Gau azkenak 5
B.B.V. 3	Artzanko's 11



Citroën BX

BX

200.000
pezetarainoko
aurrezkoa

CHAPIME tailerrak Koop. E. Mug. Araba Etorbidea z/g, Tfnoak: 79 06 57 / 79 45 22 / 77 08 67. Faxa: 771047 ARRASATE





Txutak

HONDARREKOEN AUKERA

Goleatzaileen eta sorpresen ihardunaldia izan daiteke datorren astekoa. Lehen taldeari dagokionez *Bayern de Leniz*-ek lehen garaipena lortzeko aukera izan dezake *Eskiñako ontzak* taldearen aurkako partiduan. Honetaz gain, ez dirudi Atutemelele eta *Bizkorrak* taldeak lidergoari eusteko arazorik izango dutenik.

Bigarren taldean, *Zuloak*-ek seguraski lider jarraituko du eta gainera gol asko lor dezake. Atze

samarrean dabilzan taldeei begiratu, interesgarria izan daiteke *La Ira de Odin* eta *El regreso* taldeen arteko partida.

MGM taldeari kostatuko zaio lehen garaipena lortzea ihardunaldi honetan ere, *Sannan Hussein*-en aurka jokatzeko bait du. Hirugarren talde honetan atzean dauden *Kannabis Boys* eta *Bacilona* taldeek zerbait aurreratu dezaketa.

Azken taldeari dagokionez, esan behar *Sukumurus*-ek lehen partida irabazi dezakela, *Inter de Alimafias*-en aurka jokatu. Argi ibili taldeak, liderak hain zuzen, ez du arazorik izan behar *Gastao*-en aurka irabazteko, eta *Potroak-Adelaida* partidua gogorra izan daiteke.

Beñardo Kortabarria

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Golfos Persicos	Bar Alkalde
Kakajauri	Cañon Pto. Urraco
Atutemelele	Autovia pa tu tia
Eskinako ontzak	Bayer de Leniz
Zortzikin nahiko	Ugarixoak
Bizkorrak	Potrosorri
Mutikotes	Yokese

B taldea

Zuloak	Resacas
Solano 90	Los Heredia
Lobos	Gimnasio Saioa
Arrasate Kirolak	Aizpun Bila
Laso Arregi	Okendo Kirolak
Toki Eder	Kriskibaldia
La ira de Odin	El Regreso

C taldea

Alperrak	Artano
Steaua del grifo	Bar Kajoi
Sannan Hussein	MGM
Diego Antonio	Murubarren
Fosforos	Neptuno
Kannabis boys	Bacilona
Zelai	Los motz
Danok Lagun	Pepelus

D taldea

La Banda de Pepe	B.B.V.
Argi ibili	Gastao
Potroak	Adelaida
Avinagraos	Babarias
Sisepuede	Rayo Vatika-no
Inter de Alimafias	Balañe
Artzanko's	Sukumurus
B.B.V.	Gau azkenak



AURORA-POLAR

Aseguroak

Mikel Lasa agentzia

Zerkaosteta 15 etxabehea, Tfnoa: 77 00 94, Faxa: 77 10 74 ARRASATE



LASO ARREGI argazkidenda

Errebelaketa ordubete

Alfonso Jakintsuen plaza 3, Tfnoa: 79 12 75 ARRASATE

Esther Larrañaga

Deba Garaiko parlamentari berria



Ester Larrañaga duela 31 urte jaio zen Arrasaten. Donostian Zuzenbide ikasketak egin ondoren, oposizio bidez Foru Aldundira sartu zen. Foru Aldundian zegoela EUTGn enpresa gestioari buruzko masterra egin zuen. Azken lau urteotan Foru Aldundiko Kultura saileko burua izan da eta igandeko hauteskunde onorioz, parlamentari izango da Gasteizen.

— Nola bizi izan duzu hauteskunde kanpaina?

— Niretzat kanpainak bi alderdi izan ditu: alde batetik polita izan da herriz-herri ibili garelako, jendearekin harremanetan jarritz. Bestetik, gertatzen da ez dituzula gauzak eta gaiak sakontzen, konpromezua hartu nahian joaten zara, baina ezin izaten duzu, egoera arraroa da. Apur bat neketsua ere bada.

— Kanpaina ere bukatu zen, eta gero hauteskunde gaua etorri. Nola pasatu zenuen hori?

— Pertsonalki ondo, uste dudalako edozein pertsonarentzat ohorea dela Legebiltzarrean egotea. Alderdiari begira esango nuke bederatzia parlamentari lortzea ondo egon zela, prebisioen barne zegoen, baina Gipuzkoan EAJk hobeak ateratzea nola-

bait tristura ematen du.

— *Eusko Alkartasunak badauka tokirik gaur egun Euskadiko espektro politikoan?*

— EAK defendatzen duen proiektuak badu eremu politikoa. Argi dago gainera, 120.000 pertsona izan dira EAK betetzen duen esparru politikoa onartu eta botatu dutenak. finkatu egin da EA lau urteetan, eta esparrua lantzeraz jo beharko da.

— *Botuek Gasteizerako bidea zabaldu dizute eta ondorioz, Foru Aldundiko lana utzi beharko duzu. Nolakoa izan da esperientzia hori?*

— Diputazioan zortzi urte egin ditut, hirutan idaz-

bestaldera, egiten duen lanagatik merezi du kobratzen duena kobratzerik?

— Ez dakit zenbat kobratzen den, baina dena den, uste dut batzuk mereziko dutela eta beste batzuk ez. Ezagutzen ditudan parlamentarietan lan-piloa egin dute, ordu ugari sartuz. Ez bakarrik Legebiltzarrean daudenean. aurrez gaiak sakonki prestatu behar izaten bait dira, eta gero beharbada bakarrik bost minutuz hitz egiten duzu. Uste dut badaudela Legebiltzarrean zenbait lan ikusten ez direnak. Oposizioko lana eta 10 parlamentarirekin egin beharrekoa, handia da.

— *Hauteskunde zerrendetan zergatik daude hain emakume gutxi?*

urterekin utzi nuen. Gehienbat familiarekin daukat harremana, eta Arrasaterekin harreman nostalgikoa dudala esango nuke. Lana Gasteizen egin behar badut ere, Donostian geldituko naiz bizitzeko, eta Arrasate Gasteizetik Donostiatik baino gertuago dagoenez, orain maizago joango naizela uste dut.

— *Gustatuko litzateke Arrasateko alkatesa izatea?*

— Herri bateko alkatesa izateko uste dut herria oso ondo ezagutu behar dela, eta nik erreferentzia asko galdu ditut. Dena den, uste dut herriko pertsona batentzat oherrezko lana izan behar dela alkatesa izatea.

— *Gizon famatu baten alaba izateak ateak ireki edo oztopoak jartzen ditu?*

— Uste dut aitak baduela proiektuorik. Orain ere alderdi politiko berean gaude gainera, eta famatua da, baina ez dut uste zerikusirik duenik nik eraman dudana bidearekin. Ez da famatua edo ez famatua izateagatik, baina nire aitaren alaba izatea oso pozgarria zait.

— *Hauteskunde kanpaina luzea izan da, ondorioz lan aldaketa ekarri dizu, eta lan horri ekin aurretik atsedendalditxo, ez?*

— Zubia dela aprobetxatuz, hamar egunetarako Alemaniara noa, bai.

Arrasatekin harreman nostalgikoa dudala esango nuke"

kari teknikoak izan naiz eta besteetan zuzendaria. Oso polita izan da, zenbait plangintza eta azpiegitura sortu ditugu, oso interesgarria izan da. Baina, beno, aldatzea ere ez da txarra.

— *Orain Gasteizera zoazenez, konpensatzen du parlamentari baten soldatak egin beharreko lana? Edo,*

— Nire ustez, arrazoi nagusia oraindik politikan emakume gutxi dabilela litzateke.

— *Feminista zara?*

— Bai.

— *Aspalditik Donostian bizi eta orain lanera Gasteiz joan beharra. Arrasate gertuago, ez?*

— Arrasate 17 edo 18


Iñurrategitarrak 7.161 metrotara

Irailaren 29an Pumori-ra iritsi ziren

Felix eta Alberto Iñurrategik sorpresa dexentea hartu zuten Nepaletik bueltan, urriaren 31an, euren jaioterria den Aretxabaletara iritsi zirenean. Izan ere, bi atxabaltarrak Himalayan dagoen Pumori mendira egin zuten igoera oso gertutik bizi izan zen Aretxabaletan; horregatik egin zitzaaien ongietorria.

7.161 metro neurtzen dituen mendia ez da egunero igotzen, eta pozik azaltzen ziren bi atxabaltarrak egingoagatik.

Aspaldidanik datorkie Iñurrategi anaiei mendirako zaletasuna, Nepalera joan aurretik Alpeetan eta Ipar Ameriketako Yosemite ibiliak ziren eta. Zaletasun hori aspalditik zetorkien bezala, Himalayara joateko gogoia edo ideia ere ez zen nobedadea. Bai ordea, ideiatik asmo sendora doan bidea. Horrela, beharrezko ziren gestioak egin



Felix Iñurrategi Pumori-tik bueltatu eta gero

eta bidaiarako beharrezko zuten dirua bildu ondoren, abuztuaren 22an Felix-ek Kathamandura eramango zuen abioia hartzen zuen. Astebete beranduago gauza bera egin zuen Albertok.

Beste mundu batean zegoen inpresioa izan omen zuen Felixek Kathamandura iritsi bezain pronto. Irailaren 3an, anaia biak bertan, gerturatze martxari ekin zioten, zeramatzaten 250 kioloak garraiatzeko 16 porteadore kontratatu behar izan zituztelarik. Hura eza gutzen ez duen edonori berehala elurra eta hotza etorriko zaizkio gogora, baina Felix-ek zioenez, sekulako beroa egingen omen zuen behelaldean, "Monzon" delakoaren garaia bait zen.

13 egunetan oinez ibili ondoren, porteadoreen greba eta eguraldi txarra tartean jasan behar izan zituztelarik, 5.300 metrora iritsi ziren. Kataluniar

expedizio batekin topo egin, eta handik aurrera elkarrekin egin zuten bidea.

Aklimatazioan eman zituzten egun batzuk, baina Everest-era igotzen ari izan ziren beste euskaldunei bisitak egiten, igotzeko saiakerari ekin aurretik. Irailaren 29an oso goiz jaiki ziren bi atxabaltarrak eta gainontzeko kataluniarak. Gogor baino gogorragoak egin zitzaaien bidea. Hamalau orduz ibili ondoren gailurrean, zeuden.

Nepalen egon diren bitartean ez zuten bi atxabaltarrek hemengo berri gehiegirik izan -inork ez zitzaielara idatzi aipatu zuten- eta beharbada horregatik ongietorriko sorpresa. Etorkizunera begira oraindik gauza zehatzik ez badute aipatzen ere, seguraski dirua lortu bezain laster izango ditugu beste mendi alturen batera igotzeko saiaketan.



Pumori mendiko Hego-Ekialdea

E D E L
TAPIZTEGIA
 Gortina
 Alfonbra
 Koltza
 Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
 BERGARA

F A N C Y
F A N C Y
GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

TXUS BRIZUELA


Txikitatik
saskibaloian

Txus Brizuela orain 27 urte jaio zen Gasteizen, eta ia 10 urte egin zituenetik saskibaloi munduan sartuta dabil. "Eskolan jokatzeko hasi nintzen, gero Gasteiz taldera pasatu eta han sei urte eman nituen jokatzeko. Sei urte horietan lehen maila, bigarrena, eta hirugarrena probatu nituen. Hurrengo pausua Caja de Alava taldera pasatzea izan zen, han bi urte eman nituelarik. Askatuak-ek fitxatu ninduen ondoren, baina ezin izan nuen jokatu lesionatu egin nintzelako".

Aipatutako lesio horrek Txus Brizuelaren bizitzan eragin handia izan zuen, jokatzeari utzi behar izan bait zion. "Lesioaren ondoren oso ebakuntzazaila jasan behar izan nuen. Orduan Baskoniak bigarren entrenatzaile postua eskaini zidan eta, esperientziabanuenez, onartu egin nuen. Bi urte eman ditut kargu horretan, Manu Morenorekin batera, urte hasiera arte. Hura bidali zutenean ni ere, harekin oso ondo konpontzen nintzenez, joan egin nintzen".

Ekonomi ikasketak bukatzeko ahaleginetan buru-belarri sartu zen Txus Brizuela. Hala ere, saskibaloia ezin utzi eta udako oporrak igaro ondoren Arrasateko taldea entrenatzeko deia jaso zuen. "Gasteizen mutiko talde bat entrenatzen hasteko asmoa

PODIUMA



nuela, Jose Mari Balzategi eta Joan Ander Juldainen deia jaso nuen. Ideia interesgarria iruditu zitzaidan, oso polita, jende gaztearekin lan egin beharra zegoelako eta gainera era amateurrean".

Txus Brizuelak taldea hartu eta berehalako aldaketa somatu da. "Aspalditik ezagutzen nuen talde hau, etxean nola edo hala irabazten zuen eta kanpoan sekulako jipoiak hartzen zituen. Aurten etxean jokatzeko partiduak lasaitasunez irabazi ditugu. Oraindik kanpoan ez dugu irabazi, baina irabazteko zorian egon gara. Batez ere defentsa entrenatzea gustatzen zait, baina erasoko jokoarekin baliokidetu behar dela garbi daukat, bestela ez dago zer eginik".

Ezkongai dagoen mutil honentzat zer ote da saskibaloia? "Gaur egun zaletasuna da, baina profesional arduraz hartuta. Pentsa ezazu zer den egunero Gasteizetik Arrasatera etorri beharra...".

◆ Ondo jokatu eta galdu

Centraljet Euskal Air taldeak ez du zorte handiegirik kanpoan jokatzeko duenean, beti irabazteko zorian egon bait da eta oraingoz galtzaile atera delarik. Bilboko Loyola-Indautxu taldea izan zuten etsai, momentuz kategoriako lider dena, eta une askotan markagailuan irabazten egon ondoren, 81-72 galdu zuten mondragoetarrek.

Larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera Musakolako kiroldegian Arrasateko Ordizia taldearen aurka jokatzeko du eta etxeko garaipen zerrrendara beste bat gehitzea espero da, etxean ari izan denean taldeak ez bait du inolako zailtasunik aurkitu garaipenak lortzeko orduan.

◆ San Andres-entzatzat liga hasiera

Datorren igandean arratsaldeko laurak laurden gutxiagotan, Atxabalpeko futbol zelaian, San Andres taldeak, ofizialki, aurtengo preferente ligari hasiera emango dio Gasteizko Abetxuko taldearen aurkako partiduarekin. Orainarte San Andres taldea kopa jokatzeko ari izan da eta esan behar da nahiko emaitza onak lortu dituela, bigarren postua eskuratu bait du. Igandean hasiko den ligari begira kopan erakutsi duen maila berari eustea espero dute San Andresekoek.

◆ Pilotan garaile

Klub-en arteko txapelketa jokatzeko ari dira azkenaldi honetan Arrasateko pilotari taldekoak. Joan den astean Zaratzen aurkako norgehiagoka jokatu zen Musakolako pilotalekuan eta mondragoetarren aldekoa izan zela esan behar. Gaztetxo eta gazteetan mondragoetarrek erraztasunez nagusitu baziren ere, nagusien mailan zarazutarrak hobeak izan ziren, beraz 2 eta 1eko emaitza Arrasateren alde.



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGUROAK

Kontzesifio kalea 4, beheka Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Forma fisiko onean gaude?

Zenbat eta hobeaz izan forma fisiko, orduan eta eraginkorragoa izaten da gorpuzaren lana, eta eraginkortasuna gehitzea soin osoari dagokio.

Forma fisiko onak gaixotasunei, depresioari, stressari, nagikeriari... aurre egiten laguntzen du; gainera bizitzaren alderdi guztiak jarrera baikor eta gogatsuarekin ikusteko lagungarri ere bada; are gehiago, buru-argitasun handiagoa lortzen laguntzen du.

Gaurkoan ariketa erraza egitea proposatzen dizugu, nork bere forma fisikoa egiaztatzeko.

Ariketa honek muskuluen erresistentzia neurtzeko balio du; hau da, ekintza jakin batean irauteko muskulu edo

Zure forma fisikoa frogatzen



muskulu-multzo batek duen gaitasuna. Honela egiten da:

- a) Etzan zaitez bizkarraren gainean, oinak elkartuta, eskuak izerren gainean, hatza-

marrak luzatuta, eta eskaiozu lagun bati orkatiletatik eusteko.

- b) Urdaileko muskuluak erabiliz altxatu zeure gorputza

aurrerantz hatzamarrekin belauak ukitu arte. Kontatu zenbat aldiz egin duzun eta ikusi zure maila ondoko koadrako neurriekin.

Gizonezko edo emakumezkoentzako erabiltzen diren neurriak ez dira berdinak; eta hau ez da kapritxo edo matxismoz, baizik eta gorpuzta ezberdina dugulako. Gizonezkoak emakumezkoak baino muskulutsuagoak dira eta ezberdintasun honek ekintza fisikoetan emaitza ezberdinetara eramaten gaitu. Emakumeen gorputza, ordea, askoz ere zalu, malgu edo flexibleagoa da; horregatik ez dute parrerik ariketa gimnastikoetan.

Zure forma fisikoaren maila txarra bada, orain duzu garaia forma fisikoa hobetu dezazun erabakia hartzeko.

Eukeni-Arantxa

fas

Offset Imprimaketa

- Fakturak
- Kartazalak
- Foileto eta kartelak
- Karpetak

- Bisita txartelak
- Gonbidapenak
- Lehenengo eta hurrengo orriak
- Albaranak

Fotokopiak

- Prezio egokiak tirada txikietan
- Bizkortasuna (emanaldi epea 48 ordu)

- Koloretako eta zuri-beltzeko fotokopiak egiten dituen, Deba Garaiko lehendabiziko denda
- Azaleztapenak
- Telefaxa
- Aurreidiseinuak

Plastifikaketa

- Eurokalkoa
- Autoedizioa

fasprint

Inprimaketa denda

Arrasate Pasealekua, 2

Telf. 77 06 11

Fax. 77 09 86

20500 Arrasate



Ikastaroa

Euskal Dantza Herrikoiak

• Mutil Dantza • Herri Dantza • Larrain Dantza

Noiz: ostiraletan


Ordutegia: 7etatik 8.30etara

Hasiera: azaroak 9

Izen emateak: Gazteentzako Informazio Bulegoan 77 00 65

Matrikula doan

Lore Gazteak taldearen eskutik.



Azaroko Kultur Ekitaldiak

• Zinema (osteguna 8,30etan)

15 — *Tierra de lobos.*

22 — *Un mundo aparte.*

29 — *La boca del lobo.* Txotxongiloa.

17 — Cobaya taldea: "*Trikitrak*".

• Musika

23 — "*Calido color de Otoño*"

Kontzertua.

J.L. — *Irizarren azken diskoaren aurkezpena.*



• Liburu Azoka

20-25 — Garibai Etorbidean.

Alfabetizazioaren nazioarteko urtea dela eta...

Aurten alfabetizazioaren nazioarteko urtea dela eta, gai interesgarri hau gure txoko honetara ekarri dugu. Baina, gaur egun, zeri deritzogu analfabeto izatea? Balio al du aspaldiko definizioak? «Idazten eta irakurtzen ez dakiena da analfabetoa» edota gaur egun beste esanahi bat du hitz honek?

Galdera honi erantzuteko Gordon Wells deritzon irakasle kanadiarraren hitzak geureganatu ditugu.

Zer da alfabetatua izatea?

Azken hogeitau urteotan alfabetatuaren esanahia aldatuz joan da. Bestalde, herri edo kultura bakoitzarentzat esanahi desberdina eduki dezake hitz honek. Guk mendebaldeko kulturaren kokatuko dugu

«alfabetatu» hitzaren esanahia. Wells-ek hiru alfabetizazio-maila desberdin ezartzen ditu, hiru maila hauek pertsonak aurre egin behar dion testu-izaeraren arabera ezartzen ditu.

Lehen mailako kategorian, alfabetatuok, sarri aurkitzen ditugun testuak ondoko hauek dira: telebistako programak, zerbait erostea joaten garenean gugan eragina duen publizitate iragarkia, bulegoetako leihatiletan bete arazten dizkiguten inprimakiak, etxekoei idatzita uzten dizkigun oharak... Heldu askorentzat hauek izango dira pertsona alfabetatu bezala testuekin harremanetan jartzeko dituzten aukerak.

Bigarren mailako kategorian, erreferentzi liburuak, lan-memoriak, eskola-liburuak... sartzen ditu. Testu

hauekin harremanetan jartzeko gauza izatea garrantzizkoa da gizarte alfabetatu osorako, Wells-en eritziz.

Hirugarren kategorian, berriz, informazio soila gaindituz, informazioari buruz eritzia ematen duten testuak aurkituko ditugu. Hirugarren honetan bai zientzia desberdinei buruzko teoriak eta bai literatura, poesia, antzerkia... ikusten ditu. Testu-mota honek herri baten aberastasun intelektual eta izpirituala osatzen du bere ustetan.

Wells-en ustez, lehendabiziko kategoria biak, *funtzionala eta informazionala*, dira hain zuzen, kanpaina politikoetan kontuan izaten direnak. Baina bi kategoria hauek eguneroko gai praktikoetarako oso garrantzizkoak badira ere, hirugarren kategorია, «pentsamen-

du letratuarena», alegia, da beharrezkoena gizarte alfabetatu batean parte hartu nahi duenarentzat. Pertsona bakoitzak indibidualki irakurle modura interpretazio pertsonalak garatzen eta ebaluatzen ez baiditu, eta idazle modura, sortutako testuak erabiltzen ez baiditu, beti ere besteen esanetara geldituko da, besteen eritzia- ren menpe.

Kontuan izan behar dugu aipatutako egoera hau jasan beharrak dakarren murrizketa pertsonala eta gizartearen eraikuntzan parte hartzeko ezintasuna.

Beraz, irakasle kanadiarrak hirugarren kategoría hau alfabetizazio-kanpainetan sartzea beharrezkotzat jotzen du, beti ere bentako alfabetizazioa lortu nahi bada.

Klarion Taldea

HITZALDIA

Azaroak 13, asteartea

EUSKAL HERRIKO URAREN INGURUAN

Euri eta ur errekurtsioak. Uraren erabilpen eta beharrak. Ur hornidura eta urtegiak. Urtegi-tako uraren ziklo fisiko-kimiko eta biologikoa. Ibaie-tako ekosistema. Ibaie-egoera eta haien jarraipena, urari buruzko legedia. Eginiko haraztegiak eta osasunbide egitasmoak.

• Hizlaria: **XABIER IRIBAR SORAZU**
Biologoa. Egun, «Confederación Hidrográfica del Norte»n lan egiten du.

• Tokia: **Monterron Kultur Etxea**
• Ordua: **arratsaldeko 7etan**

UEUren laguntzaz



Arrasateko
Udala



Aurrezki Kutxa
Municipala

Arrasateko I. Ihardunaldiak

Inaxio Rodrigez (Mondrako jokalaria)

Ia bi urte daramatza Inaxio Rodrigez-ek bere Seat Ibiza beltzarekin, "gehien gustatzen zaidan kolorea da", eta momentuz ez omen du inolako arazorik izan. 55.000 kilometro eginak dauzka, 15.000 kilometroro tailerrera eramaten duelarik. Unibertsitatera joateko erabiltzen duela dio Inaxiok, Bilbora, eta autopista dagoenez zapaltzea gustatzen zaiola, musika gogorra entzuten doan bitartean, "bestela aspertu egiten nau gidatzeak, baina batzuetan musika lasaia ere gustatzen zait".



"Starkey Secret" Ateak Zabalik V. Ihardunaldiak

Zure entzumenaren azterketa doan,
azaroan zehar.

Zure entzumena, gure kezka.

- Ordizian: JM Barandiaran Enparantza z/g, Tfnoa: 88 99 88
- Bergaran: San Pedro 22, Tfnoa.: 76 15 75
- ARRASATEN: JC GUERRA 1, TFNOA: 79 29 95



Zuberoatik zehar Belaguara

Jende gutxi apuntatu da. Autobusean ezin atera, baina berdin da. Autotz joanjo gara.

Hamazazpi lagun abiatu gara Arrasatetik Maulerako bidean. Hemen geldi une bat. Gaztelua bisitatu, hiritik zehar osteratxoa egin, garagardo freskoa hartu eta aurrera. Atharratze atzean utzi eta Santa Grazira iritsi.

Gure aurrean, Pirineotan dauden Naturaren fenomenoen harrigarritariko bat. Gure begi aurrean Uhajarreakoa.

Lurraren erdian sortzen diren sakon hauek, 100 eta 250 metroko sakontasuna hartzen dute. Uhajarreakoa

izanik handitasun gehien eskaintzen diguna, bere 400 metroekin.

Guk jatordua egin ondoren, arratsadean 1,5 km. egin eta Kakuetakoa barrukaldetik ikustera abiatu gara. Zein polita den!

Gero, alokatua dugun aterpea bilatzera. Non egongo ote da? Aizu, ezagutzen duzu Didier Constanceren aterpea?

- Bai, 5 km. jaitsi eta han, kanpingaren ondoan hasten den bidea hartu eta beste 5 km. mendi aldera.

Bagoaz bai, autoak hartuaz. Mendirantz igon ahala, sinestezina. Batean base-riak, hurrengoan bordak, gero garometak, gaztainak zuhaitzetik jausiaz, zerua

urdira, eta aterpe eder eta lasaia. Gure begi aurrean Santa Grazi inguruko paisaje ederrak eta urrinera Belagoako tontorrak. Afaldu ondoren izarrek jositako teilatuean, gorantz begira.

Goizean goiz jaiki eta Hogibariaraino joango gara (10 km.). Olhadibia eta Olhako zintzurak. Motxilak bizkarrean hartu eta bagoaz. Ordu erdi barru argazkietako estampa ezaguna. Olhadibia eta olhadobo zintzurak biltzen diren lekuan Holtzarteko Zubia, 200 metroko altura hartzen duela-rik. Guk Olhadibiakoa jarraituko dugu, pago oihantetik zehar. Azkenean, urjauzi izugarria. Hemen ezkerreko maldak hartu eta

Lakartzelarantz joko dugu. Han-hemenka gorostiak, perretxikoak. Uso bandak pago artean janari bila. Ehiztariak zain. Batzuk geldi, beste batzuk hemendik hona. Baina ez genuen ikusi kartutxorik lurrean botata, ezta alperriko tirorik ere. Behintzat, ehiztariak ez ziren hemengo eskopeteroak bezelakoak.

Zuberoako oihanak zeharkatu eta Txardekagaina begi aurrean, aurrerago Lakartzela.

Gure artean zegoen giro ederraz baliatuz, eta egun eder hau pasa ondoren, bati bururatu eta denok Juan Pitorea afaltzera. Ahaztuko ez dugun istorioaren gertaera.

Hankamotz

Hitzaldia

Droga Prebentzioa

- Antolatzailea: AEDeko Emakume elkarteak.
- Egunak: azaroaren, 15, 22 eta 29an (ostegunak).
- Emalea: Askagintza taldea.
- Ordua: arratsaldeko 3etan
- Tokia: AED elkarteak.





ARRASATEko UDALA

Udal-Plenoak, 1990eko urriaren 31n egindako ohizko bilkuran, hartutako akordioen laburpena.

- **Lucio Murgoitio Madariaga Jaunak 1421/90 Errekurto Kontentzioso Administratiboan agertzeari buruz, Gobernu-Batzordeak 1990eko irailaren 10ean egindako bilkuran hartutako akordioa berrestea.**
- **Elkarkidetza G.E.B.E.ren Ondarearen Elkarkidetza Pentsio Fondorako transferentzia onartzea.**
- **Azokako Araudiari hasierko onespena ematea.**
- **Ordenantza Fiskalak aldatzea.**
- **Toki-Argi Jubilatuen Tabernaren ustiapen-eskubidea adjudikatzeko lehiaketa aginduko duen baldintza juridiko-ekonomiko administratiboan plegua onartzea.**

Arrasaten, 1990eko abenduaren 5ean

Idazkaria, O.E.

Alkatea



Aste gazte

Lau gauza ditut bene-tan ulergaitzak: arranoak haizean usten duen kutsua, sugeak harkaitzetan uzten duen arrastoa, txalupak itxas-zabalean uzten duen arrastoa eta gizakiak gaztaroan duen jokaera.

Salomon

Autobusak

• Egunero Arrasatek Donostia eta Bilboko Fakultate-tara doazen autobusak astelehen eta ostiraletan bakarrik erabil daitezke.

Bekak

• Unibertsitate-ikasketak burutzen ari direntzako garrario-bekak. Egunero 25 kilometrotik gorako bidaiak egiten dutenei zuzenduak. Epea: azaroaren 30era arte.

• Ikasbide: Postgraduatuentzat 50 formazio-bekak (Enpresa Kooperatiben Kudeaketa). Betebeharrak:

30urte baino gutxiago izan; titulazioak: Industri Injenerutza (goi mailako nahiz tekniko), Ekonomi eta Enpresa-Zientziak, Fisika-Zientziak, Informatika eta Zuzenbidea. Iraupena: urtarrilean hasita, urtebete. Ordainsariak: a) Goi mailako Injeneru eta lizentziatuentzat 2.100.000 pta. b) Injeneru teknikoentzat 1.785.000 pta.

Lehiaketak

• Arrigorriagako VI. Gazteen Ipuin-lehiaketa. Euskaraz edo gaztelaniaz. Gai libre. Bi maila: a) 13 urtetik beherakoak, b) 14 urtetik 25era. Sariak: a) hizkuntza bakoitzeko hiru lan onenei: 40.000, 30.000, 15.000 pta. eta diplomak. b) hizkuntza bakoitzeko: 75.000, 45.000, 20.000 pta. eta diplomak. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 30era arte.

• Euskadiko mailako IV. Argazki eta Diapositiba-Lehiaketa. Gaia: mendia eta natura arlo guztietan. Sariak: modalitate bakoitzeko sari bi:

1.) 20.000 eta trofeoa. 2.) 10.000 pta. Lanak aurkezteko epea: abenduaren 10era arte.

• Leioako V Bertsopaper Lehiaketa. Bertsoek errima librekoak izan behar dute. Gaia libre. Bimaila: a) 14 urte arte b) 15tik gora. Sariak: a) 25.000 pta. b) 40.000 eta diploma. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 30era arte.

• "Caja de España" Pintura-Saria 1990, Sari bakarra: 2.000.000 pta. Lanen aurkezpena: azaroaren 20ra arte.

• "Andres Segovia" Nazioarteko Kitarra-Txapelketa. Urtarrilaren 2tik 6ra. Almuñecar-en. 30 urtetik beherako kitarrajoleek parte har dezakete. Sariak: 1.) 1.000.000 pta., Santiago Marin-Kitarra bat, diska-grabazioa, kontzertu-jira Mexiko eta Kubatik zehar, 2.) 400.000 eta kontzertu-jira. 3.) 200.000 pta. Izena emateko epea: azaroaren 30era arte.

Ihardunaldiak

• Pedagogia eta Adieraz-

pen Ihardunaldiak. Abenduaren 6tik 9ra. Granadan. Ikastaroak: Dramatizazio eta Antzerkia, Testu-dinamizazioa, Antzerki sortzailea Zeremonia eta Dantza, etab.. matrikula: 10.000 pta.

Txalaparta

• Txalaparta-Ikastaroetan parte hartu izan dutenek eta zaletuek, txalaparta jotzeko aukera dute, ohizko lokalean, larunbat goizetan, 10etatik 12etara.

Ikastaroa

• Euskal Dantza Herritarak Mutil Dantza, Herri Dantza eta Larrain Dantza. Ostiralean, 7etatik 8.30etara. Ins-kripzioak: Gazteentzako Informazio Bulegoan. Matrikula doan.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

M
AREN AZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

FKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferreries 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15

ARRASATE
PRESS

77 05 65

ETXEBIZITZAK

- **Neska euskalduna behar dugu** Gasteizen pisua osatzeko. Tfnoa: 79 50 53.
- **Neska behar da Donostian pisua osatzeko.** Tfnoa: 21 90 80
- **Arrasaten, erdialdean lau urteko etxebizitza** berogailuaz, salgai. Hiru logela, egongela, sukalde amueblatua, bi bainugela, ganbara. Garajea saltzea ere posiblea da. Tfnoa: 79 95 46
- **Makutzenan 5. pisu bat salgai daukat,** igogailu eta ganbara. Deitu 79 72 39 telefonora.
- **Pisua salgai Erguin kalean,** oso salneurri interesgarrian. 798741 telefonon nahi adina informazio.
- **Maitena kalean pisua saltzen dut.** Interesatuak dei egin 79 33 38 telefono zenbakira.
- **Seme-alabarik gabeko bikoteak pisua alokatu** nahi luke. Dei egin 798820 telefonora
- **Pisu konpartitu baten gela alokatuko nuke** Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 66 45. Jabi.

LANA

- **Neska gazteak etxeko lanak** eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 15 56
- **Latin, greko eta euskarazko klaseak** ematen dira. Tfnoa: 79 50 88
- **Neska euskalduna behar da** Gasteizen ume txikia zaintzeko, urtariletik aurrera. Tfnoa: 945 - 22 62 22
- **IEE bigarren mailako Fisika eta Matematika** ikasketak ematen dira (Injinerutzako hirugarren mailako ikaslea). Tfnoa: 88 25 71 (Ostiral gaua eta igandea bitartean)

- **Neska behar dugu igandeetan lan egiteko;** autoa beharko luke. Tfnoa: 79 47 85
- **OHOko klase partikularrak emateko prest.** Euskaraz nahiz erdaraz. Dei 79 50 99 Tfnoa. Esther.
- **Neska euskaldunak lana egingo luke** arratsalde. Bergara edo Arrasaten. Tfnoa: 76 52 39 gaueko 9etatik aurrera.
- **Pertsona behar da San Viator Ikastolan** ikasleen begirale eta aktibitateak egiteko, eguerdiko 1-3.30etara.. Euskalduna eta aisialdian esperientziak. Epea azaroaren 2ra arte. Eskariak San Viator Ikastetxean Arrasate Pasealekua 10, Tfnoa: 79 04 11.
- **REM I, II eta OHOko klaseak ematen ditut** larunbat goizetan, bai euskaraz, bai erdaraz. Tfnoa.: 79 99 82. Iñaki
- **REM II egiten dabilen neskatila bat** klaseak emateko pertsona euskalduna behar da Tfnoa.: 79 02 29
- **Andra euskalduna etxeko lanak** edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 07 73
- **Neska behar da umeak zaintzeko.** Tfnoa.: 79 38 55 . 8etatik aurrera.

SALEROSKETAK

- **Phillips musika ekipoa salgai.** Dei egin 76 40 50 tfnora. (10.00-13.00 eta 17.00-20.000 bitartean) Fermin.
- **Kitarra akustikoa "Jazmine bytakamine"** salgai. Erabili gabe. 35.000 pta. Tfnoa: 79 23 97 Josu.
- **Kolorezko telebista salgai 22'koa.** Prezio onean eta egoera onean. 79 30 97 tfnora deitu 3etatik aurrera.
- **Bideo kamara saltzen dut,** Sony markakoa CCD-V 200 E PRO modeloa. Deitu 796756 telefono zenbakira.

- **Mountain-bike Bizikleta salgai.** Peugeot. Tfnoa.: 76 27 78 . Pello 10-11 bitartean.
- **"2.600" bideo joko kontsola salgai** egoera onean. 5.000 pta. Tfnoa.: 78 17 88. 9etatik aurrera.
- **Ileapaldegirako tresnak salgai daude.** Egoera onean. Tfnoa.: 76 61 66
- **"Montaña del Pirineo" txakurkumeak salgai.** Pedigree gabe baina jator jatorrak. Tfnoa.: 79 97 60
- **Pisu baten ohea alokatzen da.** Tfnoa.: 790773
- **Pedigree duen Colli txakurra behar da** umeak egiteko. Tfnoa.: 79 64 50. 9etatik aurrera.
- **Pastor aleman txakur kumeak salgai.** Tfnoa: 79 15 21. Jose Luis Berezibar.

DENETARIK

- **Eralkitzeko lurra behar da** Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnora
- **Datorren ikasturtean Madrileria Joan** beharra daukat ikastera. Pisua konpartitu nahi nuke. Zuen etxean tokirik badaukazue deitu lehenbailehen. Oihane. Tfnoa: 79 90 24 Aretxabaleta.
- **Astelehen goizean Donostiara joateko,** bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirateke . Dei 79 13 83 Arrasate.
- **New York-etik gure Arrasateko lagunari** muzu handi bat. Sharryn, Geoff eta Kikin-en partez.
- **Bi gazte larunbat goizetan buzoneo** edo halakoren bat egiteko prest. Harremanetarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel.



ARRASATEN HILDAKOAK



Maria Guridi Elkorobarrutia
urriaren 25ean. 93 urte.

Valentin Gonzalez Gonzalez
urriaren 26an. 80 urte

Josefa Villar Beloki
30ean. 64 urte.

Rafael Ansoategi Iregi
azaroaren 1ean. 81 urte.

Consuelo Montón Zurbano
azaroaren 4ean 79 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Marisa

**Branka jatetxeko
zerbitzaria**




- **Patata frijituak ala egosiak?**
Frijituak.
- **Bezeroak, neskak ala mutilak?**
Berdin dit.,ez daukat maniarik.
- **Lehen platera ala bigarrena?**
Lehena.
- **Gonak ala prakak?** Prakak.
- **Rubioak ala morenoak?** Ilehoriak gustatzen zaizkit.
- **Gatza ala piperra?** Ez zait gustatzen ez bata ez bestea.
- **Asko eginda ala gutxi eginda?** Gutxi eginda.
- **Arraina ala haragia?** Arraina.
- **Goiza ala arratsaldea?** Arratsaldea, denbora libre gehiago daukat eta.
- **Etxea ala kalea?** Etxea.
- **Oinez ala autoz?** Oinez ibiltzea gustatzen zait, egin behar den ibilbidearen arabera, noski.
- **Eskuz ala kalkuladoraz?** Kalkuladoraz.
- **Bezero berritsuak ala isilak?** Normalak gustatzen zaizkit.
- **Telefonoz ala aurrez-aurre?** Aurrez-aurre nahiago dut, baina telefonoz hitzegitea ere asko gustatzen zait.
- **Errealala ala Bilbo?** Errealala.
- **Eguneroko bezeroak ala berriak?** Egunerokoekin hobeto.
- **Eskatu ala eskaini?** Edukiz gero, eskaintzea gustatzen zait.
- **Dantzatu ala begira egon?** Dantzatu, rock-a.
- **Txakurrak ala katuak?** Ez bata ez bestea, ez zaizkit gustatzen animaliak.
- **Angulak ala mariskoa?** Entsalada.
- **Autobusa ala trena?** Umeek bezala, trenaz gutxiago ibiltzen naizenez, trena.
- **Gorbata ala gorbata gabeko bezeroak?** Normal jantzita hobeto egoten dira, sport-ez.

Zelebrequerixak

Plaentziar batek desafixua egin eban «Xapua» gaitzizeneko eibartar batekin. Etorri zan eguna eta testigu eta guzti hasi zien burrukan. Eibartarrek egundoko astindua eman zotsan plaentziarrari eta maspil-maspil eindra laga eban. Lagunak bizkarrian hartu eta erre-kondora eruan eban eta urakin arpegixa garbittu zotsenian bere senera etortzen hasi zan eta orduan esan zotsan lagun batek:

- Ederrak emon dosk gizajuorri.
- Bai, baiña berak pe entzun jostak entzutekuak.
- Zer esan dotsak pa?
- Xapua, Xapua eta Xapua.
- Hik daukak baloria hik. Eta hori entzunda ez hau bertan garbittu?
- Ez, baiña ixil-ixilixan esan jotsat.



Fernando gaztetan ermentari batekin ofiziuua ikasten ibili ei zan. Egun baten, mailluakin dinbi eta danba ebilela, burdiña jo biharrian eskuko bihatza jo ei eban. Nausixa txilixoka hasi ei jakon:

— Txorimalo ganorabakua. Astarra baiño moldekaitzaua haiz, eztok sekula ofiziorik ikasiko.

Gero mailua zela manejatzen zan mila esplikazino emon zotsan eta demostrau nahixan tiriki-tauka zebilela, nausixorrek, danba, bere bihatzai mailukaria emon.

— Beorrek pe jo dau burdiña ezta-na... -esan zotsan Fernandok barrez-barrez.

— Hago ixilik! Hi be, ugazaba haizenian, bihetza barik burua be apurtze-ko libre izango haiz eta.

Juan Martin Elexpuru

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



Arrasateko kanposantua Domu santu egunean

1934

Egun nahasiak 1934eko urriaren 5aren ingurukoak. Porrot egin zuen iraultzaren egunak izan ziren (ikus Arrasate Pressen 77.zenbakia). Egundak hiru hildako utzi zituzten Arrasaten: *Marcelino Oreja*, *Dagoberto Resusta* eta *Eugenio Eduarra* Bergarako Labegarietara zihoan langilea.

Heriotzak, ostera, ez ziren hor amaitu. Matxinatuek ihes egin eta gero, Goardia Zibila haien atzetik abiatu zen,

harrapatu nahian. Egun gutxitara, trikorniodunek *Secundino Vitoria* harrapatu zuten Epele errekararen inguruan eta hil. Geroago bere buruaz beste egin zuela esango zuten.

Secundinok 25 urte zituen artean eta laster zen ezkontzeko. Udal langilea zen, gauzaina hain zuzen eta klarinetea jotzen zuen udal bandan. Anaia bat *Marcos Vitoria*, Mondragoeko Iraultza Batzordeko kide zelako Toulousen zen ihes eginda.

Agintariek Oreja eta Resustaren hiltzailatzat aurkeztu zuten *Secundino* komunikabideetan. Beranduago beste

hiruren izenak aipatuko zituzten. Gauza da haren gorpua kanposantu zibilean lurperatu zutela, edozein modutan.

Secundinoren lagunek, berriz, atera gorpua hilerri zibiletik eta urte hartako azaroaren batean, Domu Santu egunez, omenaldia eskaini zioten "*Sanperioren Sagartegixan*", horrela deitzen bait zioten kanposantuari. Espetxeratuta zeuden lagunek ogi-mamiaz egindako krisailua bidali zuten.

Argazkian agertzen direnen artean, Anduagatarrak, Herrera, Jauregitarrak, Rodriguez, Sagasta eta beste mondragoetar asko.




ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

SAN ANDRES ESKOLA



ILARGIA

Ilargia zuria da goizean ohean dago eta gauean kalean izarrekin dantza egiten.

Mila izar dauzka bere inguruan denak oso pozik daude ilargiarekin jolasten, 6. maila

Aroa

Txiki-txoko

Irakusleak: «Bakarrizko zeryatik den Ameriketako erdutyta gara, nry ezberbera?»
Ikasle jakintsuak: «Berrundage curkita zudako»


5. maila

Txiki-txoko


- Zenbat haize dauzka zure gorputzak?
- 203 jaurea,
- Burugorria! Er al nizan isan atzo 207 haize bakarriz dauzka zure gorputzak?
Baina gaur elba haize bat isantxi dut ordea...

5. maila

4. maila



Natura bere eran




Natura gizona pasatu ondoren


Eskulana

Hasiera zikloa


ERROTATXOA. Materiala: papera, artaziak, orratza, makilatxoak



1.- Kuartila tamainoko paper bat laukatu. Marratxoak dauden lekutik tolestatu. Ondoren, hatzak pasa itzazu tolesturetatik ongi nabarmentzeko.




2. Destolesta ezazu papera. Marrazkiak adierazten dizkizun mozketak egin itzazu marra zuzenetatik.



3.- A punta hartu ondoren, O puntara eramanezazu. Ezkerreko eskuaren hatz erakuslearekin eutsi behar duzu. Gero berdina egin behar duzu B, D eta E puntuekin.

4.- Hatz erakuslea kentzeke, har ezazu orratza eta zeharka itzazu ezazu punta guztiak. Gero orratza josi ezazu makilatxoan. Putz egiten badiozu, errotatxo bat bezela mugituko da.



AXOLA KLIMA

- AIRE GIROTUA
- AIREZTAPENA
- BEROKUNTZA
- HOTZ INDUSTRIALA
- BERO INDUSTRIALA
- MANTENUA

Tfnoak: (943) 79 90 75 eta (945) 45 54 45- 46

Bihotzez poztu

Udaberrian,
lore biñiak usaintzean,
zure gorputzeko azal fina senti dezaket
eta
zugana korri egiten dut.

Uda dator eta,
gau argitsuetan zerura begiratzean,
zure aurpegia ikusten dut
eta
gezurrezko ametsetan galtzen naiz.

Udazkena heltzean,
jadanik zure imajina galdu denean,
ohera sartzen naiz
eta
negar egiten dut. Negar.

Baina neguan,
lurreko zurtasuna ikustean,
zure garbitasuna nabari dezaket
eta
berriz, zugana hurbiltzen naiz.

Horregatik,
urtea igaro
eta nire alboan zaudela
ikusten dudanean,
BIHOTZETZ POZTEN NAIZ.

Philip. Lizzy



**ASEGURO
ARTEKARIA**
Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

✓ **NATIONAL GEOGRAPHIC TELEBISTAN:** Atsegin handiz ikusi nuen TVE1en *National Geographic* elkartearekin lotuta izan ziren mundu mailako zenbait esploratzaile buruzko erreportaia.

Kanadan nengoela ikusi nuen telebistarako bereziki egindako dokumental serie hau. Bidaiatzeko grina duenak, edo izanda ere, bidaiatu ezin duenak badaki zein kilikagarri diren erreportai hauek. Bertan agertzen diren argazkiak eta irudiak oro har, primerakoak dira eta tresna ezin baliagarriagoak munduan bizi diren este kulturak ezagutzen eta ulertzen hasteko.

Joan den ostegunean ikusi nuen programan Ipar Poloa, Everest, Afrika, National Geographic elkartearen hastapenak eta beste zenbait kapitulu interesgarri azaldu zitzaizkigun. Ordubetean konturatu barik joan zitzaidan. Bidaizaleok hemen duzue goi mailako saioa zuen ametsak askatzeko.

✓ **ANTZOKI ILUNA EUSKADI IRRATIAN.** Astelehenean ekin zion Euskadi Irratiak Bernardo Atxagak orain zortzi urte idatzitako istorioak emateari. Denetara zortzi dira istorioak, berrogeitabost kapitulutan banatuta. Egutero astelehenean ostiralera bitartean emanez gero, Errege egutera arte izango ditugu istorio hauek antenan.

Bere sasoiaren Kultur Sailaren enkarguz idatzi zituen Atxagak istorioak eta orain gutxira arte Euskadi Irratian egon dira. Azkenean, aurrera egiteko bi erabaki hartu ziren. Batetik Eresoinka bikoizketa etxeak egokitu (Jose Ramon Zubimendi usurbildarraren bidez) eta grabatzea, ondoren Euskadi Irratian emateko. Bestetik, akordio batera heldu ziren HABErekin istorioak kasetetan grabatu eta testuekin batera, argitaratzeko.

Programaren izena *Antzoki iluna* da eta aste honetan "*Amaren maitasuna bezalakorik ez duzu inon aurkituko*" istorioarekin hasi dira. Lehen kapituluak entzun nuen eta testua polita izan arren, ez nuen bat ere radiofonikoa aurkitu. Bestela esanda, testu larregi aukeran, eta denbora luzeegi eman zuen istorioaren hariari heltzeko. Akaso idatzi zituenean medioa (irratia) ezagutzen ez zuelako, baina nabaria da bizitasun falta.

Hori, lehen istorioaren lehen kapituluak eragindako inpresioa baino ez da. Ikusi egin behar gainerakoek zer dakarten.

Hala ere, ondo deritzot Bernardo Atxaga bezalako jendearen lana irratizatzeari, euskal irratia eta idazleek ere bai, apika bide berriak jorratzeko ezinbesteko elkarlana izan daiteke eta.

Joxe Aranzabal

Gusto baduzu

☐ SUPERZENTZUAK

Dokumenal honetan, giza-kiok ez baina animaliek euren zentzuez hatzen dituzten sentzazioetat hitzgingo digute. Paseko txoriek, adibidez, lurreko indar elektromagnetikoak, atmosferaren presioak etb antzematen dituzte, eta bidaiari ekiteko unea dela sentitzen horrela. Igandean, 20.30etan.

☐ ZARTADA

Gaztelaraz *Impakto* izenarekin ezagutzen den filmea. John Travolta aktore famatua ikusteko aukera izango dugu, soinu efektuak grabatzen lan egiten duen teknikariarena egiten. Politikarien bizitza, istripua eta heriotza, horixe da narrazioaren hari guztia. Azteazkenean, gaueko 21.20an.


☐ FUTBOLA

Kirolzalearentzat, Bundesligako partidua izango da datorren astean ETBn. Argi dago kirola, eta kirol moten artean futbola, parrilan sartzeari garrantzia eman nahi diotela Euskal Telebistakoek, asteburuetako programan bezala astean zehar ere. Ostegunean 15.40etan.

Bideoak

EGUZKIAREN IZERDIA

1532ko otsaila. Don Karlos Espainiako Errege, Maiestate Txit Goren eta Enperadore Agurgarriaren izenean, Juan Cortejo kapitaina baso zabaletan sartu zen Amazonas eta Orinoco ibaien artean, mito handi baten bila, El Dorado alegia.



Ostadar irratia

OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-ji* (Haur kantak)

OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM

Azkenean heldu da *Bapirulauke* ATBren pantaileta-
ra. Datorren astelehenean es-
treinatuko da umeentzako be-
reziki sortutako saio hau. Lehen
emanaldia Erguingo eskolan
grabatua da. Bigarrena, San
Frantzisko Xabier ikastolan...
eta horrela Mondragoeko ikas-
tetxe guztietan.

Bost minutuko bost atal
nagusi izango ditu *Bapirulauke*:
Aurkezpena, Liburu txokoa, Le-
hiaketa, Iku-mika eta agurra.
Astelehenero emango da,
arratsaldeko 7.30etan eta as-
tearte eguerdian, 13.05ean,
errepikatuko. Denetara hogei-



tabost minutu inguru iraungo du.

Umeak jaun eta jabe izan-
go dituen saio honek izango du
sari ederrik ere bertan parte

hartzen dutenen artean, baina
horren berri zehatzago datorren
astelehenean, arratsaldeko
7.30etan *Bapirulauken*.

Eztei-bidaia zoragarria egin du
Esther Merino S. Viator ikastolako
irakasleak European zehar: Paris, Munich,
Praga, Viena... Ekialdeko Berlingo
Pergamino Museotik irteerakoan ATB
izena zeukaten kaxa piloa ikusi zuten
inguruan. Galdetu zuten, bai, bazterretan
letra haien esanahiaz eta inork jakin ez.
Seguruenik **Jose Ramon Elortzak**
abuztuan utzitako orogarririk izango ziren.
Argazkian Esther eta bidaian lagun egin
zuten **Koro** tolosarra.

Eusko Legebiltzarre-
rako Hauteskundeak zirela
eta, birritan izan ziren politikari
mondragoetarrak Arrasate
Telebistan. Bozketa egunean
egindako programa berezian
eta *Zenbat buru hainbat*
aburun egindako mahaingur-
ruan. Udal hauteskundeak
hurbiltzen diren neurrian
itzuliko dira berriro



aste ko
PROGRAMAZIOA

12 ASTELEHENA

- 18.30 Teletestua, era guztietako ohar eta abisurekin.
- 19.30 *Bapirulauke*. ATBk umeentzat egindako programa berria. Erguingo eskolan grabatua.
- 20.00 *Berriak*. Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 *Mondrasport*, Beñardo Kortabarriak zuzendua.
- 20.40 *Erreportala*. Deba Garaiko Suhiltzaileak
- 20.45 *Berriak* (errepikaldia)

13 ASTEARTEA

- 11.00 Teletestua.
- 12.00 *Berriak*. (Bezperakoa)
- 12.20 *Mondrasport*. (Bezperakoa)
- 12.40 *Erreportala*. (Bezperakoa)
- 12.45 *Berriak* (errepikaldia)
- 13.05 *Bapirulauke*. (Bezperakoa)

14 ASTEAZKENA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 *Berriak*, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 *Zenbat buru, hainbat aburu*, Jose M. Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: «Soldadutza eta insumisia».
- Berriak*

15 OSTEGUNA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 *Berriak*, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 12.20 *Zenbat buru, hainbat aburu*, (Bezperakoa)
- Berriak*

16 OSTIRALA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 *Berriak*, Begofia Garaik aurkeztua.
- 20.20 *Erretratoa* J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Joxe Errasti, futbolista eta entrenatzaile ohia.
- 20.50 *Musikantoi*: Asier, Mikel, Pepe eta Patxi egindako super programa.
- Berriak*

17 LARUNBATA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 *Berriak*, (Bezperakoa)
- 12.20 *Erretratoa* (Bezperakoa)
- 12.50 *Musikantoi* (Bezperakoa)



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortexoko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Emozionalki berdin berdin segitzen duzu. Betiko eskemak aldatzen saiatu, egoera berri horietako alperrikakoak izango dira eta. Urduitasuna nabaritutako duzu batez ere, lasaiaigo lan egizu hobeto sentituko zara eta.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Etengabeko mugimendua daramazu. Egia esan, garrantzirik gabeko gaietan denbora galtzen ari zara eta benetan garrantzia dutenak ahaztu egiten dituzu. Ingunokoan nahigabeen ondorioak jasateko prestegon Leo.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Talde giroa izango da benetan erakarriko zaituena aste honetan. Baliteke horrelako jende multzoren batean zure bizitzako amodioa aurkitzea. Atzerirako bidiren bat egitea suerta liteke, edukizu maleta pronto.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Gehiagi arduratzen zara zeure buruarekin. Arazoak konprenitzeko daukazun gaitasun hori eskaini iezaiezu besteei, egun guztia protestaka ibiltzeak ez bait du merezi. Makal sentituko zara.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Mundu guztiari pelota egiteko tentazioa izango duzu aste honetan; egin zaitetz horren jabe eta disimulo pixka batekin egizu. Ez zaitu komeni besteek ziritik aterata zaudela antzematea. Lana zuhurtasunez eta txukun eginez gero, arrakasta izango duzu.



CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Lana eta itxura fisikoa izango dira benetan garrantzia eman beharrekoak aste honetan. Amodioa lanean topatzeko aukera. Armonia, plazerra eta oreka izango dira lanean jasandako tentsioa baretzeko medioak. Erabakirik hartzea ebitatu.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Erosketak intuizioaren arabera egiten badituzu behera egingo dute finantzek, poltsikoa ondo josita erabiltzea komeniko zaizu horregatik. Ez zara mundu honetan arazoak dituen gizaki bakarra Gemini. Osasun egoera onean egongo zara.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Venus daukazu aurrez aurre; egoera honek oreka eta erakargarritasun ederra emango dizu libra. Orain da nolakoa izatea gustatuko litzaizukeen pentsatzeko momentua. Talde lagunak dibertigarriak izango dira.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Urrutirako bidiren bat suerta liteke aurki. Izkutu gaiki eta amodioa izango dira erakargarrienak aste honetan. Elkarte eta taldeek lanerako bide aproposak eskainiko dizkizute. Zeure barnea ezagutzea komenigarria da.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Aste honetan puntakokeriatan murgilduta ibiliko zara, goibel egotetik buru-bero egotera pasako zare-lako. Derrepentek erabakiek hanka sartzeren bat izatera bidera zaitzakete, beraz, ondo pentsatu erabakirik hartu aurretik.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Gauzak berriz pentsatzeko eta bizimodua berantolatatzeko momentu aproposa. Izugarriko garrantzia eman beharko zenioke zeure desioei. Izkutu amodio hori idealista izan liteke.




PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zuhaitzen hostoak eroriz daudenez iraganaren alde negatibo guztia ahazteko eta denbora, energiak sendotzen emateko une egokia da Udazkena Piscis. Lan arloan merezi duzuna jasoko duzu, gustora sentituko zara horregatik.

BIDEO-EMANALDIA

Astakiloen abenturak eta kalenturak


- Tokia: **Monterron Kultur Etxea**
- Eguna: **azaroaren 10**
- Ordua: **arratsaldeko 4.30etan**
- Prezioa: **50 pezeta**
- Sarrerak: **Monterronen**
- Antolatzailea: **Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea**




Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.


Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK



OPEL CORSA BERRIA

ZEURE ESKU INJINERUTZA ALEMANA



Gasolina edo Dieselaz, 3, 4 edo 5 atekoa. 23 bertsio ezberdinetan. Corsa City, Swing, Gl, Joy, Joy Sport eta GSi. Zeuk erabaki zein hartuko dūzun lagun. PSN-PVP: 1.004.000 pta. tatik*

*Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioa (Penintsula eta Balearatarako)
Garraioa, BEZ eta emate-aurreko gatuak bame.



EZAGUTU EZAZUI

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena auzoa, z/g. Tfnoak. 76 33 44/45/46. BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa Arrasaten: Loramendi, 2. Tfnoa. 79 05 86

DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIRAKO
KONTZESIONARIA

Kontzesionari Ofizialak

OPEL 
Hobeak esperientziaz